



uk

37. zenbakia / 2003 martxoak 2

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Inausketa. Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Martxoak 8, Nerea Urrestarazu. Leihatila, Josu Esnaola. Photoshop, Iñigo Mirantes.
7. LEHEN ETA ORAIN. Sopela.
8. TALAIA. Beste begirada bat.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 22.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Inauteriak. Asier Mentxaka.
28. BERBETAN. Toti Martínez de Lezea. Unai Brea.
30. ERREPORTAJEA. Erandioko agiria.
32. ERREPORTAJEA. Aberatsak al gara Uribe Kostan.
34. BIZIMODUAK. Goimailako beharginak.

KULTURA ETA AISIA

36. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea eta Oscarrrak.
37. MUSIKA. Korrikaren kanta.
38. IRAKURGAIK. Esti Ezkerraren zutabea eta datozen liburuak.
39. KOMUNIKAZIOA. Audientziak, zelan neurtzen dira?
40. NATURA. Eguzki panelak Aixerota institutuan.
41. ELKARRIZKETA. Mario Pardo.
42. OSASUNA. Katarroa eta fobiak.
43. JANTZI. Maite Argaluzza zapata saltzailea.
44. SAREAN. Internet Iker Merchán-en eskutik.

EUSKARAZ

46. URIBERTSOAN BARRENA. Pello Etxebarriari elkarrizketa eta gainera bere bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.
48. AKABUKO PUNTE. Gure hizkera, Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
50. EUSKARA. Berriak, elkarrizketa...

AMAITZEKO

52. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Non jan? Adibidez, Goieztzi jatekxan.
54. HOROSKOPOA.
55. KOMIKIA. Dogan Gozel.
56. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
57. FLASH BACK. Berangoko dantza taldea, 1947-48.
58. AITORMENAK. Abel Barriola. Eunáte Serrano.



28 Toti Martínez de Lezea

Berbetan


Bere liburuz betetako etxean, Larrabetzun, hartu gintuen Toti Martínez de Lezea idazle oparoak. Asko ikasi genuen beragaz.



43 Maite Argaluzza



24 Inauteriak



41 Mario Pardo



58 Abel Barriola



AZALA: Asier Mentxaka



Scras. Julia Lear

JANTZIAK, NIKIAK ETA EUSKAL ARROPA
MOZORROAK ETA INAUTERIETAN
BEHAR DUZUN GUZTIA!

Juan Bautista Zabala 3, 48991 ALGORTA / Tfno. 94 460 04 62

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
 e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
 Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Eunatze Serrano
FOTOGRAFIA: Asier Mentraketa
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Nagore Etxebarri, Oskar Fernández, Josu Etxepare, Iñaki Agirre, Eduard Ugartea, Xabier Etxebarria, Patxi Diaz, Gonzalo Iribarregaray, Bertots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak
MARRAZKILARIAK: Gorka Vázquez, Mixelko Uranga, Dogan Gozel, Iñigo Mirantes
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / Inprimategia: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1678-00
ISSN: 1576-6799
 Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
 © Boluntzarreta
 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du

Itxasgane Etxea / Karitategia 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta

TOPAGUNEA

GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du

BERANGOKO Udala

Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du

Erandioko Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

YBILK

Aldizkari honek Erandioko Bertots Euskaraz elkartearen laguntza jasotzen du

Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Noraino ailegatuko da hau?

1998an Egin izan zen. Duela egun gutxi, Euskaldunon Egunkaria. Tartean, euskararen edo euskal kulturaren alorrean beharrean dabilzan asko. Inork ez daki noraino ailegatuko den zoramen paranoiko hau. Behin eta berriro egin da diagnostiko bera, behin eta berriro salatu da Euskal Herriaren aurkako eraso bidegabe eta neurrigabea; gauza bera mila bider eta berba desberdinak esan dugu euskaldunok, baina berbak agortzen hasi dira dagoeneko, eta arazoak hortxe dirau. Munstroa gero eta handiagoa da, gero eta puztuago ageri zaigu, gero eta aseगतzago. Nora goaz? Zein izango da hurrengo biktima? Zer egin dezakegu?

Garzonadak ez ditu Garzonek soilik egiten dagoeneko. Edozein epaile izan daiteke egokia erasoaldi latz hau errespetagarritasun eta juridikotasun estalkiaz apaintzeko. Guztiok geure buruari egiten diogun itauna honakoxea da: zein da azken helburua? Kalean euskaraz berba egitea debekatuko dute berriro? Euskarazko komunikabideak, euskarazko irakaskuntza, dantza taldeak, txalaparta, bertsolaritza... legez kanpoko utziko dituzte, talde armatu batek harremana daukatela mila bider errepikatu ostean? Garzonek bere zorigaiztoko lasterketa hasi zuenetik, askotan esan ditugu halakoak edo antzekoak, txantxetan-edo. Txantxa hau, ordea, gero eta serioagoa da.

Zuek hau irakurri orduko, Egunkaria ixteak sortutako tristura, hasarrea, ezintasuna (gorrotoa?)... zertxobait baretu dira segurantzean. Momentu aproposa izan daiteke berbak ahaztu eta konponbideak bilatzeko. Ez da erraza ordea, euskaldun bakoitzak konponbide desberdin bat mahaigaineratzen du eta. Gure arteko batasunean egon daiteke gakoak. Ez ahaztu eraso olde honetako lehengoa, Eginen itxiera, Euskal Herriko eragile gehienak inoiz ez bezalako adostasun maila lortu eta gutxira eman zela.

Sarritan, aspaldiko garaietako injustizia handien berri ematen diguten pelikulak ikus ditzakegu telebistan. Ingelesek Indian eta Irlandan, apartheidaren aldekoek Hegoafrikan, AEBtako hegoaldeko zuriek XX. mendearen erdialdean... egindakoek amorratu egiten gaituzte. Noizbait, beharbada, mundu osoko telebista-ikusleak ere amorratu egingo dira espainiarrek hemen egin zutena kontaktuko duen pelikula ikusiz.

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuen testuak biatzeko: aldizkaria@euskalnet.net • Faxa: 94 491 58 31

goierritarrak



SAN NIKOLAS PLAZA, 2003

Inausketa / Landare bati abar gehienak ebaki, sendago haz dadin. Halan definitzen du "inausketa" Elhuyarren hiztegi entziklopedikoak. Garai jakineran egiten da inausketa; hain zuzen, orainxe ikus ditzakegu zuhaitz gehienak biluzik eta besomoz. Gehienak diogu, irudian ikus daitezkeen bezala zuhaitz guztiek ez daukate eta patu berbera. Eskumakoak, antza, borroka egin zuten anputaziorik egin ez ziezaioten. Badinudi poltsadun andrea, metro gutxian, urteko sasoi baterik besterainoko ibilaldia egiten ari dela. / Argazkia: Asier Mentraketa

Leihatila

> Josu Esnaola

Itxaropena

Otsailaren 15ean gerraren kontrako manifestazioak izan ziren munduko hainbat hiritan, eta Bilbon bertan ere jende multzo ederra bildu zen. Baina aitortu beharra daukat, ni ez nintzen bertan izan, Somporten bainengoan Bizarra Lepoan elkarte-arekin ipar eskia egiten. Hala ere, aukera izan nuen bezain laster, bertan izan izan zen lagun bati deitu eta praktetan sartu ezinik igarri nuen, kapitalismoa gainbehera atzeraezinean ei dago. Bere hitzetan Ameriketako Estatu Batuek ez dituzte ondo neurtu Irak erasotzeak izan ditzakeen ondorioak.

Irailaren 11ko atentatuek eragin dute AEBen jarrera eta atentatugileen asmoa hain urrun joatea ez bazen ere –askotan aipatzen baita inperioak munduan zehar sortzen duen sufrimendua bere bihotzera eramatea baino ez zutela bilatzen–, itsu-itsuan gerran sartzen badira inperioaren azkena izan daiteke. Europako estatu guztiak ez datoz bat Bushekin, Afganistanen erresistentzia agertzen ari da, Ipar Korea ere hor dago eta gainera Hego Amerikan ezkerreko mugimendua, egunetik egunera sendoago dabil. Hor jarraitzen du Fidelek, Venezuelan Hugo Chavez ezin gobernutik bota, Ekuadorren Lucio Gutierrez dago, Brasilen Lula. Ez dezagun itxaropena gal. 4

Iritzia

Martxoaren 8an emakume langilearen nazioarteko eguna ospatzen da. Honen harira ELA sindikatuko kidea den Nerea Urrestarazu bere gogoeta eskatu diogu.

Berdintasuna guztion eskubidea

m

«Emakumezkoak oraindik langabezi tasa handiak jasaten ditugu eta gurean prekaritatea oso zabalduko dago»

Emakumeen lan merkatuko egoerak agerian uzten du oinarritzko aukera-berdintasunaren falta; horrek menpekotasun ekonomikora behartzen gaitu, eta eskubideak gauzatzeko eta bizi proiektu propioa izateko aukera eragozten digu.

Azken urteotako hazkunde ekonomiko handiak ez dio eragin biztanleriari; emakumeen enplegu tasa apurka hazten ari bada ere, oraindik langabezia tasa handiak jasaten ditugu, eta prekaritatea oso zabalduko dago: kontratu eskasak, aldi baterakoak, gogoz kontrako lanaldi denbora partzialekoak, soldata txikiagoak, kategoria paraleloak eta bazterkeria erabiltzeko beste hamaika modu.

Gainera, lan egiteko adinean gauden emakume askori “jarduerarik gabe” gaudela esaten digute, neurtu ezineko lana egin arren egunero, euren inguruko pertsonak eta gizartea garatzeko ezinbestekoa den lana. BPGaren kalkuluetan ez da aintzat hartzen lan hori, eta horrela, administrazioek baztertu egiten dute familien inguruan gizarte zerbitzuak antolatzeke ardura.

Bazterkeriari aurre egiteko eta berdintasuna benetan eskuratzeke, ondorengo neurriak proposatzen ditugu:

–Emakumeengan eredu ekonomiko neoliberalak duen eragina agerian uztea.

–Ekonomia, aberastasuna eta horren banaketa solidarioa bermatuko duen bidea bilatzea.

–Gizarte zerbitzuak garatzea, emakume askok merkatu informalean egiten duten lana merkatu formalera ekarri.

–Lanaldia banatu eta murriztea, denok lan egiteko aukera izateko eta lanpostu duinak sortzeko.

–Amatasuna/aitatasuna emakume zein gizonen eskubidea izatea, eta beharrezkoak diren lan guztiak (soldatapekoak izan ala ez) berdintasunez egitea, guztiok aisialdirako aukera berdinak izateko.

–Emakumeen aurkako bortizkeriarik eta menpekotasun harremanik gabeko gizarte eredu sortzea, eredu patriarkala baztertua.

–Partaidetza eta ordezkapena bultzatzea gizartearen erabakiesparru guztietan.


Urtero galdetu arren “zergatik, zertarako martxoaren 8a”, aipatutako egoera horiek guztiak kontuan izanda, argi dago gaur egun ere emakumeen benetako berdintasun osoa aldarrikatzeko eguna dela. Ezin dugu ahaztu borroka hau egunerokoa dela, eta ez soilik egutegiko halako eguneko, oraindik egiteko eta lortzeko asko dugu eta. 4

Nerea Urrestarazu (ELAko Genero Politika eta Gazteen arduraduna)

photoshop > Dioxosozko monolittoa Algortako metro plazan paratu dute

Argazkia eta manipulazioa: Aiser Murbaka


[lehen]



[orain]

**Iraganez doa denbora* beti / SOPELA 1957-2003**

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



Espainiako armadak Algortan paratu duen kartel bat

datua > herrien neurriak

Jakin gura izan dugu zenbateko azalera duten Uribe Kosta eskualdeko hamar herriek eta horretarako EUSTAT erakundearen azken datuei begiratu diegu. Beheko laukian ikus dezakezuenetz, Erandio da eskualdeko herririk zabalena eta Plentzia, berriz, txikiena. Guztira, Uribe Kostak 102 kilometro karratuko azalera du, hau da, Orozko herriak adina; eta Bizkaiko lurralde osoaren % 4,6 betetzen du soilik. Bitxikeria moduan, Lanestosa (1,2 km²) da Bizkaiko herririk txikiena eta Karrantza (137 km²), berriz, zabalena. ^m

azalera (km²-etan)

- Erandio18
- Lemoiz14,3
- Getxo11,9
- Gorniz10,2
- Berango8,8
- Leioa8,5
- Sopela8,4
- Barrika7,8
- Urduliz7,8
- Plentzia6,3



begizorrotz > gerrari ez


Gerra berba danon ahotan dabil egunotan. Gerrak egiteko armadak behar izaten dira eta armadak osatzeko soldaduak. Gurean gazteek aspaldian ejerzitoari ezezko borobila eman eta gero, “profesional” bihurtu dute armada. Dirutza ederra xahutzen dute lan eskaintza iragartzen. Hala ere, eta pozgarria da, behar duten beste soldadu aurkitu ezinik dabilta. ^m

bazen > gorlizko itsas eritetxea

XIX. mendeko erdialdetik aurrera, Bizkaia etengabeko industrializazio prozesuan egon zen. Onuragarria zen ekonomiarako, baina bere alde txarrak ere bazituen: hilkortasun tasen gorakada, industria guneean aruntak diren gaixotasunen zabaltzea... Honek, gizartearen maila guztietan hausnarketa piztu zuen. Eta honen lekuko, Enrique Areilza, Luis Larrinaga eta Felipe Llanok egindako txostena dugu. Bertan, birrikietako gaitzen arrazoi eta ondorioez aritu ziren; eta hauek sendatzeko, Bizkaian, umeentzako itsas eritetxe bat eraikitzearen beharra azaldu zuten. Gorniz leku egokitzat hartu zuten. Aldundi Gorenak, proposamena onartu eta Mario Camiña arkitektoari eman zion eraikina egiteko ardura. Lanak, 1911ko apirilaren 29an hasi ziren eta hauek burutzeko hainbat arazo (lehen mundu gerra, horien artean) izan zituzten. Baina azkenik, 1919ko ekainaren 28an, atek ireki zituzten. ^m

gauzak > bilboko baldosa

1942an, “La Moderna” izeneko fabrika, Bilboko udaletxeak diseinatutako baldosa ezaguna egiten hasi ziren. Antza, gerraostean ez zegoen porlan askorik, eta baldosa egileek kalitate txarreko produktua egiten zuten. Udaletxeak, hori konpontzeko, berak egitea erabaki zuen (ez ei zion eragiten porlanaren rasionamenduak). 1970 arte, Bilboko lantegi txiki batean egiten zuten baldosa langile bik. Gero, Bilbotik kanpo egiten hasi ziren; gaur egun, Tuter eta Gasteizen egiten da gehien. Baldosa mota honek itzelezko arrakasta eduki du, ia ikur bat bihurtzeraino, Bizkaiko herri guztietan dago-eta. Izan ere, oso egokia da hemengo eguraldirako, laprast egitea eragozten duelako. ^m



Baldosaren diseinuak laprast egitea eragozten du

kale izendegia > iparragirre



Leioan eta Sopelan, adibidez, aurkitu ditugu Iparragirre izena dituzten bi kale. Euskal erromantizismoaren ordezkari nagusienetakoa izan zen abeslari hau Urretxun jaio zen 1820ko udan eta handik 61 urtera hil zen. Bere bizitzaren erdia baino gehiago Euskal Herritik kanpo eman zuen, baina hala ere, Jose Mari Iparragirrek bere herriaren arima inork baino hobeto islatu zuen abestien bitartez. Gipuzkoar honek “Gernikako arbola” ereserkia idatzi zuen eta hain zuzen ere, hori izan zen bere abestieta-tik oihartzunik handiena lortu zuena. ^m

Argazkian, Jose Mari Iparragirre

**BISITATU
GURE DENDA!**

MOROTXO



**350 M²
KIROLERAKO
GUZTIA!!**

**URIBE KOSTAKO
KIROL
DENDA**

**TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82**

BEROGAILU ETA ITUR-

HIRURAK

T: 430 53

Sarrikobaso 15



**EGINKOR
INMOBILIARIA**

Basagoiti, 55 behea
T: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net
www.inmoeginkor.com

Ehun urte baino gehiago hutsik

XVIII. mendean eraiki zuten **Galeako “fuertea”**. Eraikin militarra zen, eta bere **azkenak** bigarren gerra karlistan eman zituen. Orain zeresan ugari sortzen ari dira hura berreskuratzeko asmo desberdinak

Galeako gotorlekua Getxoko txokorik esanguratsuenetakoa da. Historia gorabeheratsua eduki du XVIII. mendean eraiki zutenetik, eta aspaldidanik hutsik eta egoera negargarrian dago. Eraikin militarra izanik, hainbat gerraren lekuko izan da. Orain, bere isilean, beragaz zer egingo den oso argi ez dagoela ikustera behartuta dago. Adi egon, baliteke-eta laster “gerra” berria egotea horren inguruan. Oraingoz polemika jaino besterik ez da egin.



Urteetako utzikeriak egoera tamalgarrira eroan du Galeako gotorlekua

Bizkaian gorde den XVIII. mendeko eraikin militar bakarra da Galeako gotorlekua. 1742an eraiki zuten, Bilborantz zihoazen itsasontziak kortsarioengandik babesteko. 59.606 erreal kostatu zen.

Eraiki eta zazpi urtegarrenean, gotorlekua eraikitzea eragin zuten arazoak desagertuta zeuden antza, erabiltzeari uko egin zioten eta. Geroago, berriro haren beharra egon zenean, konponketa ugari egin behar izan zizkioten. 1793an frantziar eta espainiarren arteko gerra hastear zegoela, kanoi berriak ipintzea erabaki zen. Urte bi lehena eraiki zen itsas argiaren dorrea, gaur egun ere zutunik dirauena. Azkenean, frantziar jeneral batek hartu egin zuen, 1795ean.

Gotorlekuaren azken erabilpen militarra bigarren gerra karlistan izan zen. Orduan, bai alde batekoak bai besteokoak izan ziren bertan nagusi. Ondoren, eraikina hutsik eta zaindu gabe gelditu zen, apurka-apurka gaurko egoera negargarri-

raino ailegatu arte. Halan eta guzti, XX. mendeko 70eko hamarkadan berreskuratzeko ahalegin bat egon zen; taberna ere ipini zuten bertan, baina esperimentuak ez zuten luze iraun.

Zer egin?

Azken urteotan, Galeako fuerteari erabilpen egokia ematearen aldeko iritzia zabaltzen dira. Baina ez dago adostasunik. 1997an Udaletxeak ideia lehiaketa antolatu zuen eta hiruk jaso zuten saria. Irabazlea gotorlekuan behatoki astronomikoa eta itsas museo egitea proposatzen zuten proiektua izan zen.

Orain, baina, badirudi asmo haiek albo batera utzita daudela. Zer egin, bada? Getxoko Sozialista Abertzaleak taldeak

adierazi duenez, *“duela urte batzuetako ideiak baztertuta, Udalak ostalaritza proiektu pribatu baten esku utzi gura du gotorlekua. Herriari ez lioke inongo onurarik ekarriko horrek; bai, ordea, bere garaian saritutako ideietako edozeinek. Gu, edozelan, erabilera*

«Abrako merkataritza-ontziak kortsarioengandik babesteko eraiki zuten 1742an»

publikoa bultzatzearen aldekoak gara”. Udal iturriek, berriz, zera diote: *“Ideia lehiaketa batek ez du ezertara behartzen, eta gainera, ordukoa beste gobernu-talde bat zen. Dena dela, Udaletxeko organoetan ez da inongo erabakirik hartu. Ostalaritza-ekimenarena aipatu egin da, baina besterik ez”*. m

Anjel Lertxundi idazlearen hitzaldia Irakurzaleen Txokoan



Hamaika libururen egilea da Lertxundi

Bizarra leopan euskara elkarteak antolatutako Irakurzaleen Txokoa bilguneak Getxora idazle ezagunak ekartzeko ohiturari eutsiko dio aurton bere. Hasteko, Anjel Lertxundi oriotarrak emango du hitzaldia martxoaren 12an (eguztina), arratsaldeko 7'30etan eta Ixas Gane etxean (Algortako Karitate kalean).

Anjel Lertxundi 1948an jaio zen. 1970an ipuin bilduma bat argitaratu zuen. Orduetik, Lertxundiren luma ez da

geldirik egon, eta euskal literaturaren lanik gogoangarrienetako batzuk eman ditu. Bestalde, Lertxundiren lanaren zati handi bat gazte eta umei zuzendutako literaturak osatzen du. Arlo horietan guztietan irabazi ditu sariak, baita kazetaritzan ere. Martxoaren 12ko berbaldean, bere obra marduleko azken bi liburuez arituko da batez ere: *Mentura dugun artean* eta *Zorion perfektua*. Sarrera, bide batez esateko, dohainik izango da. m

EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK

Getxoko Udaletxeak euskara ikasi gura dutenentzako dirulaguntzak emango ditu aurton. Eskolak ordaintzeko bitarteko falta daukatela frogatzen duten heldu guztiek hartu ahal izango dituzte laguntza horiek; baita lan mundura sartzeko beren burua prestatzen dabiltzanak ere, baldin eta ikasketak burutu berri dituzten edo azken urtean dauden unibertsitateko edo lanbide heziketako ikasleak badira. Dirulaguntzen zati garrantzitsu bat 12 urtetik beherako seme-alabak dituztenentzat izango da. Era berean, laguntza edukiko dute lan kontuak direla-eta umeekin harreman zuzena daukatenean. Azkenik, udaletxeko zinegotzi eta langileek ere abantaila hori eduki ahal izango dute, gura izanez gero.

FOTOGRAFIA IKASTAROAK IRUDI TALDEAREN ESKUTIK

Getxoko Irudi Taldeak argazkilaritza ikastaroak eskaintzen ditu ikasturte osoan zehar. Edozein momentutan eman daiteke izena bertan parte hartzeko, 639-404 263 telefonora deituz edo rainer@wanadoo.es helbide elektronikora mezua bialduz. Ikastaro mota bi ematen ditu Irudi Taldeak. Bata, oinarritzakoa, hastapeneko delat esan daiteke. Taldeko Juan Félix Ruizek azaldu digunez, *“kameraren erabilera eta beraren atalak zeintzuk diren ikasten da. Horrez gain, pelikula zelan erabili, argazki artistikoak zelan egin...”*. Bigarren ikastaroaren muina zuri beltzeko laborategia da. Horretan, errebelatua eta kopiaketa lantzen dira. Ikastaroak Algortako Kultur Etxean ematen dira.

cianoplan s.a.
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
<http://www.cianoplan.es>

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

Ormazako bidea

lanak martxoaren 31n amaituko dira

Goñi Ormaza estartatik pasatzen den bide berria (Getxoko Andra Mari auzora sartzeko) martxoaren azken egunerako egongo ei da amaituta, Bizkaiko Bideak enpresatik ziurtatu digutenez. “*Gure langileek martxoaren 31n amaituko dute bere beharra. Gero, Aldundiko eta Udaleko agintarien esku dago bidea irekitzeko data*”, esan digu José Ignacio Ortiz Bizkaiko Bideak-eko kontseilari ordezkaririk.

La bi milioi eta erdi euroko aurrekontua izan duen obra hau izazko apirilaren 5ean hasi zen. La urtebetegarrenean irekiko zaie autoei eta beraz, orduetik aurrera Getxo Uribe Kostako korridorearekin bat egongo duen bide hau denontzat egongo da zabalik. ^m

Ormaza estarta



PUNTA GALEA TALDEAK TXIRRINDULARIAK BEHAR DITU

Getxoko Punta Galea Txirrindulari elkarteak kanpaina hasi du 9 eta 15 urte bitarteko umeak taldera sar daitezzen. Hala egin gura duten guztiak barikuetan igaro daitezke Punta Galeako bulegoetatik (Algortako Illeta kaleko 10.enean), iluntzeko 8etatik 9etara bitartean. Osterantzean, telefonoz dei daiteke, 94 430 42 41 zenbakira hain zuzen ere. Bestalde, elkarteak txirrindulazale hutsentzako taldea ere badaukala gogorarazi gura du.

M^a Jesús Asteinza >

Eskuz Esku emakumeen elkarteko arduraduna

“Martxoaren 8an ez dugu ekitaldirik egingo”



Argazkian, M^a Jesús Asteinza

1977an sortu zenetik, **Eskuz Esku** elkarteak emakumeak heztea eta prestatzea izan ditu helburu. Egun 800 kide dituen Getxoko elkarte honen arduradunagaz egin dugu berba.

—Emakumeei zuzenduta dagoen elkarterik bateranoena al da “Eskuz Esku”?

—Ez, herrian badira gurea baino zaharragoak diren emakume elkarteak, baina beste ezaugarri bat dute: batez ere aisialdiari begira egiten dituztela bere ekintzak (irteera kulturalak eta abar). Gure elkarte aitzindaria izan zen formakuntza helburua eskaintzen eta lan-merkatua kontuan hartzen. —Zelan deskribatuko zenituzke elkartearen bazkideak?

—Ikasketak utzi dituen emakume asko ditugu, baita lanean hasteko prestakuntza behar dutenak ere. Batez besteko adina 30-

50 urte bitartekoa da, eta jatorria dela eta, gehienak getxoztarrak dira, baina inguruko herrietakoak ere baditugu.

—Getxon zortzi emakume elkarte daude. Zerk bereizten zaituzte haietatik?

—Heziketa ematen bakarrenetarioak garela uste dut. Emakumeak prestatzen ahalegintzen gara euren eskariei erantzuteko, eta horretarako lan-poltsak ditugu, prestatu ondoren lan egin gura dutelako. Hori da errealitatea.

—Ikastaroak, irteerak, hitzaldiak... Gai asko jorratzen dituzue?

—Gure ezaugarri nagusia ikastaroak dira; urtero 20 baino gehiago egiten ditugu. Informatika, geriatría, dietetika eta elikaduraren gainekoak dira ikastaroak, besteak beste. Gero, aisialdiari begira, tailerrak ere baditugu. Orain, adibidez, grafologiaren gaineko eta masajeak ematen ikasteko tailerrak daude abian.

—Martxoaren 8an Emakumeen Eguna izango da nazioarte mailan. Beharrezkoa da oraindik data hori ospatzea?

—Baietz uste dut. Dena den, emakumeen eskubideak aldarrikatzeko urteko edozein egunek balio du. Horregatik, martxoaren 8an ez dugu ekitaldirik egingo eta ez gara elkartuko, geroko utziko dugu. ^m

NORA JO

- *Eskuz Esku* emakumeen elkartearen bulegoa Getxoko **Urduña Mendatea** kalean dago.
- Zabalik dago egunero **10etatik 12etara**, eta astelehenetan ere arratsaldeko 5etatik 7etara.
- Harremanetarako: **94 430 08 35**



Aratusteak ospatzeko herriko hiru erakunde ados jarri dira

Getxoko Udalak, Getxo Enpresa eta Merkataritza elkarteak eta herriko ostalariak akordioa lortu dute hirurok batera Aratusteak antolatzeko, otsailaren 28an eta martxoaren 1ean, Euskal Herriko hiri eta herri gehienek ospatuko duten egun beretan.

Hartutako erabakiaren arabera, Getxoko ostalariak mozorroen lehiaketaz arduratuko dira. Bitartean, Udalak umeentzako Aratustea antolatuko du otsailaren 28an eta herriko kaleak girotzeko lanak ere bere gain hartuko ditu martxoaren 1ean. Egun horretarako berbera bi

antolatuta daude, Algortako San Nikolas plazan eta Areetako metro geltokiko plazaren inguruetan hain zuzen ere.

Tabernen ordutegiak

Tabernak ixteko ordutegiaren gainean ere erabakia hartzea lortu dute. Horren arabera, hirugarren mailako taberneko goizaldeko 4etan itxiko dituzte ateak eta besteek, bigarren mailakoek alegia, 2:30etan. Martxoaren 7an eta 8an ere Algortako tabernak beranduago ixteko baimena eman du Udalak. Dena den, hori aurrean bakarrik gertatuko da. ^m

EMAKUMEEN XIV. JARDUNALDIAK MARTXOAN ZEHAR

Martxoak 8 dela-eta, XIV. Emakumearen Jardunaldiak izango dira Getxon Martxoaren 3tik 29a arte. Hilean zehar hamaikatxo ekimen antolatuko dituzte Udalak, Kultur Etxeak eta Emakundeak: zinema, antzerkia, erakusketak, musika, hitzaldiak...

Martxoaren 3an Angeles Castilloren margolanen erakusketak hasiko da Erromon eta, hortik aurrera, zer ikusi ugari egongo da. Besteak beste, Zine Klub eta Cinema Paradiso ohiko sailek emakumei eskainiko dizkiete euren emanaldietako batzuk. Halan, *La boda del monzón*, *Deliciosa Martha* edo *8 Mujeres* bezalako filmak ikusteko aukera egongo da. Martxoaren 14an (barikua), arratsaldeko 8etan eta Algortako San Nikolas liburategian, Angela Vallveyk hitzaldia emango du, *Pequeño arte de vivir (literatura y otros placeres)* izenburuagaz.

Jardunaldiak iragartzen duten kartela



SATISTEGI



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

Maitasunez amodiozko gutun irabazleak

Otsailaren 14an, maiteminduen San Balentin egunean, Leioako IV. Amodiozko Gutun Lehiaketaren sariak banatu ziren Pinueta kultur aretoan egindako ekitalde batean. Honakoak izan ziren irabazleak: lehen mailan (18 urtetik beherakoak), Maitane Elorriagaren *Fantasia Azula*; bigarrenaren (19 eta 30 urte bitartean), *Me he presentado media docena de veces en tu casa*, Javier Lesek idatzita; hirugarrenaren (31 eta 55 urte bitartean), *Paolo Contatore*, Ester Navasek idatzita; eta azkenik, laugarrenaren (56 urtetik gorakoentzat), Koro Arrueren *Gracias*.

Aurton 146 gutun aurkeztu dira gero eta ospe handiagoa daukan lehiaketa honetara. Euskaraz idatzitako artean, bakarrik jaso du saria: Algortako Galder Guenagaren *Zerbait esan nahi dizut*, hain zuzen. Bigarren mailan hartu du parte Galderrek (19-30 urte artean), eta bigarren saria eskuratu du. Antolatzaileek jasotako eskutitzen maila ona azpimarratu gura dute. Ea San Balentin egun askotarako den.



Gotzon Bilbao "Aterpe Leioa" Gazte Bulegoko arduraduna da hasieratik

Gazteen topagunea Aterpe Leioa Gazte Bulegoa bere tankerako topagune bakarra da gure eskualdean

2001eko irailean ireki zituen atek Leioako gazte bulegoak eta urte eta erdi honetan herriko gazteen topagune bihurtu da. Informazioa emateaz gain, Sabino Arana kalean dagoen Aterpek ekimen ugari burutzen ditu urtean zehar gazteak dinamizatzeko helburuagaz.

Uribe Kostako gazte bulego bakar honetara eskualdeko hainbat lagun hurbiltzen dira, batez ere aterpetxetako erabiltzaile karneta egiteko. Gotzon Bilbao Leioako gazte bulegoaren arduradunak

dioskunez *"Aterperen erabilera gazteek dituzten beharren arabera dago. Sasoi honetan, adibidez, oso lasai dago bulegoa, baina Aste Santua edo uda heltzen diren heinean gazte gehiago hurbilduko dira"*. Batez ere, 16-32 urte bitarteko gazteak joaten dira bertara eta lanpostu edo ikasketen gainean eskatzen dute informazioa.

200 metro karratu eta hiru areto dituen bulego hau asteleheneretik barikura arte dago zabalik, goizeko 11etatik 13era eta arratsaldeko 16etatik 19etara. m

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Talletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Talletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

Andrak > Emakume elkarte

Andrentzako alternatibak



Argazkian, Andrak elkarteko kide batzuk

Andrak Leioako emakume elkarte soziokulturala da. 1990ean eman zituen lehen pausak, eta Ana Céspedes presidenteak azaldu digunez, *"helburua emakumeak etxetik irten eta, beste emakume batzuekin batera, hainbat proiektutan parte hartzea da"*. Mometu honetan, 50en bat tailer dauzkate zabalik. *"Horietan aritzen dira, elkarri euren arazoak kontatzen dizkiote, eta bakardadea arintzen dute; gizarte honetan bakardade larregi dago, eta gu horri kontra egiten ahalegintzen gara"*, dio Céspedesek.

Andrak-en ia 2000 emakume daude

izena emanda, era askotan parte hartzen. Tailerretan 500-600 inguru dabilta, eta eguneroko jardunean, dozena bat.

Eskaintza zabal

Tailerretan makina bat arlo jorratzen dute: literatura, dantza, yoga... Gainera, txangoak antolatzen dituzte: antzerkia ikustera, enpresak bisitatzera... Urte osoan ia atsedean barik aritzen dira. Euren helburua andrazko guztiak dira, edadearen arabera edo bestelako bereizketa barik, baina gehienbat *"40-45 urtekoak etortzen zaizkigu"*. m

Harremanetarako: 94 464 71 71




POP ROCK LEHIAKETA

Apirilaren 25ean amaituko da Leioako III. Pop Rock Lehiaketarako maketak aurkezteko epea. Parte hartu gura duten taldeek posta ziurtatuaz bidali behar dituzte euren lanak Aterpe Leioa Gazte Bulegoaren helbidera (Sabino Arana, 48 - 48940). Irabazleek 1.500 euroko saria jasoko dute. Argibide gehiago gura izan ezker 94 480 55 17 telefonora deitu behar da. Iazko edizioan 40 taldek parte hartu zuten, 23 pop-rock atalean eta 17, berriz, metalean.



VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA



amesti 7sl

[eraikuntzak]
[etxeetako berrikuntzak]
[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

Euskal jolasak

umeentzako ikastaroak

Gure herriko betiko jolasak ikasi eta euskaraz jolasteko aukera zabaltzeko asmoz, ikastaroak burutu dituzte Erandioko ikastetxeetan. Alde batetik, 3-12 urte bitarteko umeak izan dira ikastaroen jasotzaile, taldeka antolatuta eta adin bakoitzaren ezaugarrietara egokituta. Bestetik, irakaskuntzaren alorrean euskaraz tresna duten irakasle zein hezitzaileak. Izan ere, erdal giroan hazitako gure umeek ez dakite euskaraz olgetan, ez dituzte jolasen kantak ezagutzen, eta eskolako jolas orduetan ohikoa da umeak gaztelaniaz jolasten entzutea. Irakasleek ere, euskaraz hitz egiteko gai izan arren, sarritan arazoak dituzte umeekin euskaraz jolasteko. Horregatik, hizkuntzaren transmisioan eten den katebegia osatzea da bideratutako ikastaroen helburua.

Euskaraz Zerbitzuaren ekimena izan da eta Urtxintxa elkarteak eman ditu ikastaroak. m



Argazkian, Marian de la Fuente

Pertsonaia > Marian de la Fuente

“Euskal mundua murrizta eta zabala da aldi berean”

Marian hamaika saltsako perrexila dugu. Antzerki munduan urrats batzuk eman zituen Getxoko Antzerki Eskolan eta oholtzetara ere igo zen. AEKren eskutik Plentzia, Algorta eta Leioan euskaraz irakaslea izan da eta horrez gain Uribe Kosta eta Euskal Herriko Kultura ekimen gehiengan parte hartzen du.

—Galdera topikoa bada ere zergatik euskaraz ikastea eta euskaraz bizitzeko erabakia? Egia esanez ez dut erantzun zehatzik galdera horri, edo nik ez dut gogoan behintzat horrelako erabakirik. Nire ustez, erabaki bat baino prozesu baten emaitza izan da. Lagun talde osoa hasi ginen euskaraz ikasten Erandioko Gau eskolan. Monjen eskolako uniformegaz joaten nintzen orduan.

—Baina euskaraz ikasi eta gero euskaraz ere bizi... Konturatu gabe emandako urratsa izan da, gau eskolatik euskal kulturaren munduan hasi ginen murgiltzen, antzezlanak euskaraz, kantaldiak, zinema... Neurri batean,

euskal mundua txikia denez, gero eta euskaldun gehiago ezagutzun duzu “Koadrila” handitzen doa eta beraz euskaraz bizitzeko beharra ere sortzen da.

—Kultura ekimen askotan ikusten zaitugu. Bai kuxkuxero hutsa naiz, gauzak ezagutzeko formarik onena barrutik bizitzea da eta horregatik gustokoa izan dut beti kultura ekimenetan parte hartzea. Antzerkia gustokoa dut eta antzezlanetan aritu nintzen. Euskaraz ikasten eta irakasten nabilela esatera zaharrek erakarri ninduten eta Sopolako euskal esatera zaharren txapelketan urtero parte hartzen dut. Birritan irabazi egin dut. Porzieto, martxoaren 29an daukagu hurrengo zita Sopolan.

—Erandion eta euskaraz, ez da zaila? Euskaldunon lana da barruko eta kanpoko mugak gantitzea. Hartzekoak aurkitzen ditugu euskaraz bizitzen garenean. Eta neurri handi batean euskararekiko begirunea ere sortarazten dugu. Izan ere, Erandioko euskaldunak ezagutzeko eta euskararen mundua zabaltzeko, euskaraz bizi nahi dugun erandioztarren helburuak izan behar dute. m

Jorge Blancoren oroimenez

Herri Krosak korrikalari andana erakarriko du

Jorge Blancoren Oroimenezko Herri Krosak milaka korrikalari erakarriko ditu Erandioko kaleetara martxoaren 2an (10:00etatik aurrera). Escuela Atletica-Club Atletismo Erandion izeneko taldeak antolatze lanean ibili da, eta lasterketaren 14. aldi hau jendetsua izatea espero du; izan ere, hainbeste urteren ostean proba hau denboraldiko klasikoa bihurtu baita.

Herri krosa izanik, esan beharrik ez dago jendearen parte hartzeak garrantzi handia duela antolatzaileentzat. Halere, korrikalarien artean sor daitekeen lehiakortasunari ere behar duen garrantzia ematen diote. Horrela bada, lasterketa honetako irabazleen zerrenda ez da hutsaren hurrengokoa. Horien artean aurkituko dugu, esaterako, Cristina Petite bizkaitarra, Euskadiko Txapelduna bost urtez izan ostean Sydneyko Joku Olinpikoetan aritu zen korrikalari bikaina.

Herri Krosean irten nahi dutenek Erandioko kiroldegian eman ahal izango

dute izena, otsailaren 24tik 28ra bitartean eta martxoaren leian; datuak postaz (Erandioko 179 P.K. zenbakira) edo faxez (944676700) ere bidali daitezke. Behar-beharrezkoa da honako datuak aipatzea: izena eta abizenak, jaiotze data, maila eta kluba. Herri Krosaren egunean bertan –martxoaren 2an– ezin izango da izena eman. m

Argazkian, Jorge Blanco



ZUZENDARITZA TALDE BERRIA ERANDIOKO EMAKUME TALDEAN

Erandioko emakume taldeak hamaika ikastaro, lantalde eta jardunaldi burutu du 2002. urtean: gimnasia, antzerkia, informatika, sevillanaka, kantua, defentsa pertsonala, aretoko dantzak, zine foruma, hitzaldiak... Urteko balantzea egin eta aurrerantzean bide beretik jarraitzeko asmoa agertu dute egin berri duten batzar nagusian, non orain arte elkartearen buru izan den Ana Zaldibarrek M^a Carmen Garaigortari utzi dion lekukoa. Azpimarratzekoa da 300 bat emakume direla gaur egun elkartearen kide. Orain zabalik daukate beste hainbat ikastarotatik izena emateko epea. Horetako bat Defentsa Pertsonala.

LOKALAK GOIKOAN

Udalak Erandion Goikoako udaletxe zaharretako solairuetako bat egokitu du auzo honetako gizarte, kultura eta kirol taldeei zerbitzua emateko. Horrela, Goikolanda Txirindulari Elkarteak, Goiztiri Kultur Taldeak, Jai Batzordeak, Goialde Dantza Taldeak, Auzo Elkarteak eta beste aukera izango dute lokal berrietan bilerak eta beste zenbait jarduerak burutzeko. Erandion Goikoak mila bat bizilagun dauka eta bertako taldeak aspalditik aritu izan dira lokal falta salatzen. Orain, hitzarmenak bideratuko ditu udalak bilera gela bat, pare bat bulego, sukalde, komuna eta artxiboa dituen lokalaren erabilera bideratzeko.

Euskara ikastaroak soksos de

IRAILA - EKAIN SEPTIEMBRE - JUNIO 2002/2003

MAILA GUZTIAK / TODOS LOS NIVELES 16 urtetik 99 bitartean / De 16 a 99 años
IKASTARO ETA MODULO BEREZIAK EGA / HIZKUNTZA

Egin ezazu zure matrikula!

HORARIO / ORDUTEGIA Mañanas, tardes y noche / Goizez, -arratsal

CLASES en IES Astrabudua y Bekoa Ikastetxea



ERANDIOKO?UDAL?EUSKALTEGIA

Bekoa Ikastetxea, Desanexión kalea, 4 behe Tel.: 94 467 60 75
erandio.eusk@euskalnet.net / www.udaleuskaltegiak.net



Igerilekuak

zabalik apirilaren hasieratik aurrera

Sopeloztarrek bainu-jantziak prestatzen joan beharko dute, herriko igerilekuak laster zabalduko dira-eta. Dagoeneko lanak amaituta daude eta Udaletik esan digutenez apirilaren hasieran zabalduko dituzte lehenengoz Sopelako igerilekuak. *“Epe guztiak ondo betetzen ari dira eta seguru asko Aste Santua ailegatu baino lehenago irekiko ditugu”*, diosku Imanol Garai Kultura zinegotziak. Bai igerilekuak bai Urko kiroldegiko instalazio guztiak kudeatzeko kontratazio-espeditentea argitaratuta dago Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Honen ondoren, proiektuak aurkezteko epea zabalduko da. ^m

Igerileku berria



GIZABIDERAKO HERRIA

Otsailaren 11n “Sopela: giza biderako uria” izenburupean prestatutako ekimena aurkeztu zieten herritarrei eta elkarte guztiei herriko Udaletxean. Sopelan sortu daitezkeen arazoak konpontzeko bideak topatzea da proiektu berri honen helburu nagusia eta hori lortzeko guztien parte-hartzea beharrezkoa da. Ekimenean, auzokide guztien arteko harremanak sendotzeko eta hobetzeko jarraitu behar diren hainbat aholku agertzen dira.



San Pedroko Schola Cantorum abesbatzako kideak ereserkia grabatzen Urdulizko Tío Pete estudioan

Herriko ereserkia ia prest

Grabazioa amaituta dago eta ekainaren 29an aurkeztuko dute herritarren aurrean

Gero eta gutxiago falta da sopeloztarrek euren herriaren ereserkia ezagutu dezaten. Urdulizko Tío Pete izeneko estudioetan egin dituzte grabazio lanak bi txandatan, lehenengoan zati instrumentalari dagokion parte grabatu zuten, eta otsailaren 13an, hain zuzen ere, kantatutako zatien txanda heldu zen. Orain piezaren moldaketak egiten dabilta ekoizleak.

Sopelako ereserkiaren grabazioetan herriko hiru talde aritu dira: Uribe Bazterra Banda, Barinatxe Txistularien Elkarte eta San Pedroko Schola Cantorum abesbatza; denek Begoña Hervás-en zuzendaritzapean jo eta abestu zuten.

Talde horiez gain, ezinbestekoa da bi pertsona aipatzea: batetik, Carlos Ibarra, berak konposatu duelako doinua. Gainera, orkestra zuzendari eta Bilboko Kontserbatorioko piano irakasle honek txalaparta sartu du piezari; horrela Sopelakoa izango da instrumento hori daukan ereserki baka-

rrenetarikoa. Bestalde, Ismael Etxebarriaren izena ere aipatu behar da lerro hauetan, ereserkiaren hitzak berak idatzi ditu-eta, bertako euskara erabiliz gainera. Sopelan ondo ezaguna den gizon honek hainbat olerki idatzi ditu bere bizitzan eta beti erabili izan du eskualdeko euskara bere lanak idazteko; horren adibide ona dugu herriko jaietako pregoian agertzen den olerkia.

«Carlos Ibarra eta Ismael Etxebarria dira egileak»

Ekainaren 29an, San Pedroko jaien egun handian hain zuzen ere, sopeloztarrek ereserki berria lehenengoz entzuteko aukera izango dute, lehen aipatutako taldeek zuzenean eskainiko dute eta. Ekitaldi hori izango da, beraz, Sopelako ereserkiaren aurkezpen ofiziala, eta ondoren diskoaren banaketa hasiko da. ^m

David Bustamante > Tai-txi irakaslea “Ezin dut zapatarik jantzi”



Davideri aitarengandik datorkio oinutsik ibiltzeko ohitura

Operación Triunfo-ri esker izen-abizenak ezagun bihurtu zaizkio. Dena dela, David Bustamante barrikar gazteak ez du halako “laguntzaren” beharrik nabarmentzeko, berez ere pertsonaia galanta da eta. Surfari, tai-txi irakasle, galipot biltzaile... nondik hasi?

Goizez bulego batean egiten du lan, injineru moduan. Arratsaldez, denetarik egiten du. Duela sei urte-edo hasi zen tai-txi ikasten, eta azken urte biotan sopeloztarrei irakasten dihardu: “120 ikasle dauzkat. Dantza moduan egiten den arte martziala da, mugimendu la-

saiak ditu eta oso ona da osasunerako”. Surfa ere irakasten du, Peña Txuri surf taldeak herrian daukan eskolan.

Txikitatik oinutsik

Beharbada, zuetako askok kaletik oinutsik ibiltzen delako ezagutuko duzue David. Berak azaldu digu nondik datorren ohitura hori: *“Aita beti ibiltzen zen oinutsik. Ni ere hasi nintzen, beti hondartzan eta mendian ibiltzen ginelako. Ohitura hartu nuen eta orain ezin dut zapatarik jantzi. Lantokira eroaten ditut –derrigorrez!–, baina bestela ez”*. ^m

ESAERA ZAHARREN TXAPELKETA, MARTXOAREN 29AN

Nikola euskaltegiak bederatzigarren urtez antolatuko du (hamargarren edizioa da, hala ere) Esaera Zaharren Txapelketa datorren martxoaren 29an. Bi eta lau kide bitarteko taldeek har dezakete parte. Talde bakoitzari ehun euskal esaera zahar emango zaizkio, eta horiek buruz ikasi beharko dituzte. Martxoaren 29an bertan, goizez, esaera zahar horiekaz lotutako bertsoak abestuko dira. Taldeek bertsoak zein esaeragaz lotuta dauden esan beharko dute, eta esaldi horren gainean berba egin. Goizeko irabazleek finala jokatu dute Ander Deuna ikastolan, bertan egingo den bazkari herrikoia ostean. Hor ere bertsoak egongo dira, baina, goizekoak ez bezala, bat-batekoak. Fredi Paia eta Maialen Lujanbio arituko dira horretarako laguntzaile modura. Izena emateko epea martxoaren 21a arte egongo da zabalik, eta zazpi eurotan ordainduko da.

ETXEEKO? ELEKTROTRESNEN? KONPON -
Lacofris, s.L. SERVITEC
 Y MARKA GUZTIAK
 Y 24 ORDUTAN ERANTZUNA
 Y 3 HILABETEKO GARANTIA
 Y 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA
 & 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

KURKUDI LIBURU DENA
Euskarazko irakurgai
 Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
 T: 944 913 402

BARBIRULAU 5 BOSTI
 erakusketak
 antzerkia
 dj.ak
 ALGORTA

LAIKAK Taberna
 Bentatxu, 2
 48600 Sopela
 Tlf. 94.6760328

GOIZEAN
 Gozoki eta prentsa, gutxi denik
 Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak
 Orduña Mendatea 1 T: 430 22 13
 GETXO T: 460 02 88
 ALGORTA

Garai batekoak

Errota askotxo gorde da Berangon

Berango ondo ezagutzeko derrigorra da bertako errota ezagutzea. Historian zehar gehiago egon dira, baina gaur egun sei dira gelditzen direnak, batzuk beste batzuk baino egoera hobean, eta guztiak, hori bai, beren jatorrizko funtzioa galdua. Halan eta guzti, garai batean errotek garrantzi handia eduki zuten ekonomian, eta hori ondo islatu da kronika historikoetan.

Alberto Díez ikertzaileak *Berango: 40.000 años de historia* liburuan dioenez, herriko errotarik zaharrena Pozakoa da. Gaur egun ospeko garagardotegi bihurtutako errota hau 1225etik dago hor gutxienez. Ia berrehun urte geroagokoa da Itze (1480), eta 1588koa (edo lehenagokoa, baina orduan aipatu zen lehen aldiz) Basagoiti-Errotatxu. Azken hau ei da, hain zuzen, errotaren makineria hoberen mantendu duena. Berangoko gainerako errota XVII. mendekoak dira, aspaldi desagertutako Gorrondo-erdikoa eta Gorrondo-ostaikoa horien artean. ^m

Pozako errotarria



Etxean hartu gintuen Juan Luis Mugertzak

Juan Luis Mugertza

Irakasle, idazle eta bidaiari amorratua da Berangon bizi den elgoibartar hau

“Bilbon eskolak ematen nituen, inguruko herri txiki bat aukeratu nahi genuen bizitzeko eta, azkenean, Berango izan zen”. Duela bospasei urte izan zen hura. Hurrezkerotik, hiru liburu idatzi ditu Juan Luisek, literatura irakasle lanagaz uztartuz: *Lehenengo aldiz* (gazteentzako sexuaren inguruko istorio bat), *Aruma, urrezko oihanean* (Amazonian girotutako kontakizuna) eta *Astoari konfiturak* (herri txiki eta hirien arteko aldeetan oinarrituta) Hala ere, ez dauka bere burua idazletzat: *“Idaztea oso zaila da. Nik gustuko daukat, baina*

ez dut daukat inongo beharrik”. Liburuez gain, munduan zehar egindako bidaien gaineko erreportajeak idatzi ditu, eta horietako askok sariak ere irabazi dituzte.

Yanomamien artean

Izan ere, bidaiari amorratua dira Juan Luis eta Edurne andrea. Leku exotikoetara joaten dira ia urtero, eta bertako leinuakaz egon izan dira. Amazonaseko yanomamiakaz, esaterako, hamabost egunez egon ziren. Yanomamiak izan ziren, hain zuzen, bere bigarren liburuaren gaia. ^m



MARTXOAREN 16AN, MASKARADA

Datorren martxoaren 16an Simon Otxandategi dantza taldeak Zuberoako maskarada antzeztuko du herriko kaleetan zehar. Jatorrizkoan bezala, hasieran “barrikada” izeneko dantza egingo dute auzoz auzo. Hori 10etatik aurrera izango da eta auzo batetik besterako bidean zantantzarrak iragarriko du taldearen etorrera. Eguerdiko ordu bata aldera, maskarada osoaren laburpena eta Luzaideko inauteriarren zatiren bat dantzatuko dute Sabino Arana kalearen inguruetan.

Informatika ikasten



Berangoko emakume talde bat informatika eskolak hartzen

Bigarren urtez Berangoko Emakumeen Elkarteak eta Udalak oinarrizko informatika ikastaroa antolatu dute herriko emakumei zuzenduta. Santo Domingo de Guzmán ikastetxeko gela batean, eguazteno eta eguenero arratsaldeko 18:30-

etatik 20:30etara jasotzen dute 12 saioko iraupena duen ikastaroa. Apirilaren 16an amaituko den ekimen honek oso harrera ona eduki du emakumeen artean, eta esan digutenez internet-en ibiltzen ikasiko dute datorren ikasturtean. ^m

KARABIGANE AUZOARI ITXURA BERRIA

Udaletxeak Karabigane auzoan hainbat lan egingo direla iragarri du. Berangoko auzorik zaharrenetakoa da, industrializazioaren garaian egindakoa eta, Miren Dobaran alkatearen berbetan, “inguruan egiten ari diren auzune berriekin kontraste bortitza dauka gaur egun”. Beste lanak beste, espaloiak zabalago egingo dira (legeak eskatzen duen neurrietara moldatzeko) eta altzairuzko hesia ipiniko da sarbideko errepidearen ertzean dagoen harrizkoaren gainean. Jesarlekuak ipintzea ere aurreikusi da. Lanek 60.000 euroko aurrekontua edukiko dute; momentu honetan, udaletxeko teknikariak proiektua diseinatzen dabilta.

Karabigane auzoa



aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

20º ANIVERSARIO URTEURRENA

AENOR
R
Empresa Registrada
ER-1891/2001

AENOR
GA
Gestión Ambiental
CGM-02/006

KLIMATIZAZIO
INGENIAIRTZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net

Martxoak 01-15

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: aldizkaria@euskalnet.net • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

[herriak]



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Tel. 946 76 11 28
URDULIZ



Taberna Berni
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

udondo taberna eguneko eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

Ajuria taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA



URDULIZ Trenbide-pasagunearen inguruan

Urdulizko hirigunean dagoen trenbide-pasaguneak gehiengoaren desadostasuna sortarazten du herrian, batzuren ustetan ere "legez kontrakoa izan daiteke". Dena den, Udalak metroa lurperatu dadin eskatu zuen iaz, herriko alderdi politiko guztien onarpenarekin.

Helburu hau lortzeko Juan Olea alkateak urte asko daroaz Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lana Sailagaz berba egiten eta "epe laburrean metroa lurperatu ezin

izango dutela esan didate, baina alternatibak proposatu dituzte, adibidez, saihesbide bat egitea. Hori ezin daiteke burutu lekurik ez dago-eta", diosku Juan Oleak.

Hala ere, alkateak epe ertainean metroaren lurperatze lanak egingo direla espero du: "Beharrezkoa da trenbide-pasagunea desagertzea, Urduliz bitan zatikatzen duelako eta trafiko arazo handiak sortzen dituelako. Arazoa Getxoko Maidagan auzokoa baino larriagoa da", Olearnen berbetan. m

Urdulizko Aita Gotzon kalean dagoen trenbide-pasagunea



GORLIZ Plaza berria itsasgizonen omenez



Ondargane inguruan eraikiko da plaza berria

Betidanik marinel herria izan da Gorliz. Orain, Udaletxeak herrian diren eta izan diren itsasgizonen omenaldia egin gura die, euren izena edukiko duen plaza bat atondu-ta. *Itsas Gizon Enparantza* edukiko du izena, eta herritar batek Udalarri oparitu dizkion hainbat itsasoko tresna egongo dira bertan. Oraingoz, eta plazaren egokitze-lanak hasi artean, tresnok ez ugertzeko tratamendua egiten ari dira. m

ANTZERKIA

GETXO

▶ "10". Getxo Antzokian. Martxoak 15, zapatua. 19'30etan eta 22'30etan. Juan Luis Galiardorekin.

GORLIZ

▶ **Contigo en la distancia.** Erakusketa aretoan. Martxoak 8, zapatua. 19'30etan. Oliver Productions.

LEIOA

▶ **Lilas.** Gaztetxean. Martxoak 7, barikua. Ordua zehazteke.

SOPELA

▶ **Natatxa.** Umeentzako antzerkia. Udaletzeko plazako karpan. Martxoak 2, domeka. 18'30etan.

▶ **Mujeres al rojo vivo.** Udaletzeko plazako karpan. Martxoak 8, zapatua. 20'30etan.

▶ **Bodas de sangre.** Ekitaldi aretoan. Martxoak 9, domeka. 19'30etan. Itzartu taldearen eskutik.

ERAKUSKETAK

BERANGO

▶ **Retornos.** Carlos Cánovas eta Ramón Esparza. Erakustaretoan. Martxoaren 3tik 16ra.

GETXO

▶ **Angeles Castilloren olioak.** Erromoko erakustaretoan. Martxoaren 3tik 15era.

▶ **Zeramika.** Uxue Urrutikoetxea eta Amara Brea. Algortako erakustaretoan. Martxoaren 11tik 22ra.

HITZALDIAK

BERANGO

▶ **Emakumearen autonomia.** Berangoetako Kultur Etxean. Martxoak 5, eguaztena. 19'30etan. Edurne Lópezen eskutik

GETXO

▶ **Especies del género Amanita.** Basozaleak elkartearen (Karitatea 1, Algorta). Martxoak 10, astelehena. Edu Pérez eta Jaime Ruizen eskutik.

MUSIKA

BARRIKA

▶ **Rockadelica.** Golfo Norte-n. Martxoak 1, zapatua. 23:00etan.

▶ **Indomables.** Golfo Norte-n. Martxoak 8, zapatua. 23:00etan.

LEIOA



▶ ANTZERKIA

HAU PARADERUA

Martxoaren 6an Hau Paraderua! antzezlan ikusteko aukera egongo da Getxo Antzokian eta XIV. Emakumearen Jardunaldien barruan. Lan honetan Loli Astoreka, Aitzpea Goenaga, Elena Irureta eta Elixabete Elizondo aktoreek umorez betetako bost istorio dakargite. Aspaldi hasi ziren Euskal Herri osoko tauletan antzetzten, eta Getxokoa izango da, hain zuzen, azken emanaldia.

Non: Getxo Antzokia • **Noiz:** martxoak 6, eguena • **Ordua:** 20:00

▶ **Disbraner+Bulldozer.** Gaztetxean. Martxoak 8, zapatua. 21etan.

INAUTERIAK

BERANGO

▶ **A, E, I, O, U. Deabru beltzak.** Umeentzako antzerki beltza. Berangoetako Kultur Etxean. Martxoak 1, zapatua. 18etan.

▶ **Umeentzako erromeria.** Pilotalekuan. Martxoak 2, domeka. 18etan. Mozorrotuta joan.

ERANDIO

▶ **Lantzeko inauteriaren antzezpina.** Erandio Goikoa auzoan. Martxoak 1, zapatua. 19etan. Goialde dantza taldearen eskutik.

▶ **Kalejira.** Trabudu dantza taldearen eskutik, Astrabuduan kalejira. Ignacio Aldekoa eskolatik Plaza Berrira arte. Ostean, dantzaldia eta txokolate-jana. Martxoak 7, barikua.

GORLIZ

▶ **Hainbat ekitaldi.** Martxoaren 3an (astelehena), 11etan, tailerrak eta jokoak. 17etan, *Euskal Herriko itsasoa* txotxongilo erakustaldia. 18etan,

txokolate-jana. Iberrebarri plazan.

LEIOA

▶ **Hainbat ekitaldi.** Martxoaren 4an (martitzena), goiz eta arratsalde, umeentzako jolasak, tailerrak, parkea... 17etatik 19etara, 2003ko Haurrentzako Mozorro Lehiaketa. Sakoneta polikiroldegian.

IRTEERAK

BERANGO

▶ **Emakume afaria.** Emakume Elkarteak antolatuta, andrazkoentzako

afaria. Enekuriko Montenegro jatetxean. Martxoak 8, zapatua. Informazio gehiago elkartearen egoitzan.

LEHIAKETAK

GORLIZ

▶ **Argazki eta diapositiba lehiaketa.** Lanak Kultur Etxera bialdu edo eroan behar dira, apirilaren 30a arte. Oinarriak internet-en: www.gorliz.net/euskara/basesfotoE.htm

ZINEMA

GETXO

▶ **La boda del monzón.** Getxo Antzokian, martxoaren 5ean (eguaztena), eta Areetako Gran Cineman, martxoaren 6an (eguna). Biak 20etan.

▶ **Deliciosa Martha.** Getxo Antzokian. Martxoak 7, barikua. 22etan.

▶ **8 mujeres.** Getxo Antzokian, martxoak 12an (eguaztena), eta Areetako Gran Cineman martxoaren 13an (eguna). Biak 20etan.

▶ **Agua tibia bajo un puente rojo** Getxo Antzokian. Martxoak 14, barikua. 22etan.

BESTERIK

BERANGO

▶ **Ipuin kontalaria.** Ekitaldi artean. Martxoak 8, zapatua. 17'30etan. Hiruki taldea.

GETXO

▶ **Kontalarien Kluba.** Algortako Kultur Etxeko areto nagusian. Martxoak 14, barikua. 19etan.

LEIOA

▶ **Wireless jardunaldiak.** Gaztetxean. Martxoaren 7tik 9ra. Hitzaldiak, tailerrak...

© Zenbat Gara elkarte


**Kafe
ANTZOKIA**

BILBO
San Vicente 2 48001 BILBO
Tel: 94 424 46 25 Fax: 94 424 28 02

ONDARROA
Iparragirre 10 48700 ONDARROA
Tel: 94 633 41 41 Fax: 94 613 44 43
www.kafeantzokia.com



Beskoitze (Lapurdi), euskal dantzak



Lantz (Nafarroa), Ziripot, txatxo bat eta Miel Otxin



Hernani, azeri dantza



Ituren (Nafarroa), joaldunak

Inauteriz blai

Hemen daude inauteriak. Urte osoko tentsioen iturria ireki eta jai indarrez isuri da han-hemenka, garizumako barealdia noiz ailegatuko zain; euskaldunok betidanik ama lurragaz eduki dugun harreman estua berriro gogoratzeko momentua heldu da, kasu askotan kaletar peto bihurtu garen arren. Tira! Mendiko edo hiriko, aurton bere Euskal Herrian hauek bezalako irudiak errepikatuko dira.


Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Azpilikueta (Baztan), umeentzako jokoak



Ituren (Nafarroa), joaldunak



Antzuola



Tolosako gaupaseroak




Altsasu, momotxorroak elurpean



Unanu, Nafarroa



Mundakako aratustekak



Ihabar, Nafarroa



Lesakako puskak

Ingelesez, Toti Martinez de Lezeak ondo dakienez (hainbat hizkuntza menperatzen du), best seller esaten zaio salmentetan arrakasta duen liburuari. Eta hori da, hein batean, Totiren lanek lortu dutena. Jakina, Euskal Herria eskarparate murrizta da; ez pentsa Larrabetzun bizi den gasteiztar honen kontu korronteak Ken Follet eta abarrenak bezainbesteko osasuna duenik, baina hori bost axola Totiri, beste gauza askotan da-eta aberatsa. Hala iruditu zitzaigun guri, antzinako kutsua darion bere etxean milaka liburuz inguratuta egindako elkarrizketa honetan.

Historiaren istorioak

Toti Martinez de Lezea

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Inspirazioa?

Langile handia da Toti: “Asko hitz egiten dudalako idazten dut, eta asko idazten dut hitz egiten dudan bezala idazten dudalako”. Esaldi korapilatsu horrek ederto definitzen du burua ideiez beteta daukan emakume hau; berriketarako daukan grinak aditzera ematen duenez, Totiren ahotik guztiak batera eta arapaladan irten gura luketen ideiak, hain zuzen.

1998tik hona, urtero gutxienez liburu bat argitaratu du. Dioenez, ez da inspirazio kontua, “jesarri eta idaztearena baizik. Inspirazioa beste kontu batzuetarako behar da, poetentzat-eta, ez honetarako. Inspirazioaren zain egon behar naizen egunean, utzi egingo dut”.

BIBLIOGRAFIA

- *La Calle de la Judería* (1998)
- *Las Torres de Sancho* (1999)
- *La Herbolera* (2000)
- *Señor de la Guerra* (2001)
- *La Abadesa* (2002)
- *Los Hijos de Ogaiz* (2002)
- *El Mensajero del Rey* (2002)
- *Euskal Herriko leiendak* (2002)

—Historia gustuko izatea aitarengandik jaso ei zenuen...

—Hala da, baina berari XX. mendeko historia gustatzen zitzaion batez ere. Antzinakoa ere bai, baina garaikidea gehiago. Berarekin ikasi nuen Euskal Herriko historia asko: leiendak, jauntxoak, marine-lak, balea arrantza...

—Eta zelan erabaki zenuen nobela historikoa idaztea?

—Telebistan egon nintzen bost urtez, eta halako batean itzulpenera bueltatu nintzen. Itzulpen tekniko zen, nahiko astuna eta aspergarria, eta gogoan neukan beste zerbait egiteko, antzerkia, musika... La-

tziarik”. Bestalde, nik asko irakurtzen dut, etengabe. Eleberria irakurtzen dut, izugarri gustatzen zait-eta, orain daukadan lana egiteko saiakera asko ere irakurri behar dudan arren. Eta asko gustatzen zait eleberri historikoa. Baina hemen, hainbeste idazle egonda, ez dago eleberri historikoa idaztera animatzen den inor. Beraz, nire lagun hark txantxetan esandakoa —ez nintzela eleberri bat idazteko gauza— eta bertoko eleberri historikoa irakurtzeko neukan beharra batu ziren. *La Abadesa* idazten hasi, amaitu eta gorde egin nuen. Zertarako eroango dut liburua argitaletxe batera, pentsatzen nuen. Euskadin 3500

“Salmentetan lortutako arrakasta ezustekoa da, oraindik ere, niretzat”

gun batekin egon nintzen eta esan egin nion, esatearren, “egunen batean eleberri bat idatziko dut”, eta ezetz esan zidan, “zuk ez, zuk narrazio laburra, ipuina, leiendak, baina nobela ez. Ez duzu pazien-

liburu besterik ez dira argitaratzen urtean, zer dela-eta argitaratu behar dute nirea? Hala ere, gustua hartuta nengoen eta *La Calle de la Judería* idazten hasi nintzen. Hura izan zen argitaratutako lehenengoa.



Totiren ustez, berak egiten duena ez da inspirazio kontua

—Hasieratik asko saldu duzu...

—Bueno, hori kristoren ezustekoa izan zen. Nik esaten nuen: 100 salduko ditugu. Ezustekoa izan zen eta izaten ari da oraindik ere. Eta ez soilik salmentaren aldetik, kalean jasotzen dudana erantzuna, hitzaldi bat ematera noanean ikusten dudana...

—Euskal Herrian eleberri historikoa berpiztu duzu?

—Baliteke. Eleberri historikoa egon da, baina oso tarteka. Genero batek bizia edukiteko jarraipena behar da. Zer egin dut nik, nire ustez? Hasteko, oso ondo pasatu. Bigarrenik, eleberri historiko izeneko genero horretarako irakurleak irabazi.

—Zure eleberri gehienak Erdi Aroan girtuta daude. Euskal Herriko historiako arorik interesgarriena da?

—Ez dut uste, segurantzean aro guztiak

dira interesgarriak. Baina beharbada ezezagunena da eta, beraz, haren inguruan istorioak sortzeko aproposena.

—Zure nobeletan pertsonaia nagusiak, gehienetan, jende arrunta izaten dira. Badakigu zeozer jende haren historiaz? Zelan bizi ziren, zein ohitura zeukaten... Izan ere, historiak boteretsuz berba egiten du ia beti...

—Hortxe dago kokka. Askoz interesgarriagoa da jende arruntaren bizimodua, erregeena dagoeneko kontatu dutelako beste batzuek, eta gainera beti gauza bera da. Ea zeozer dakigun? Badakigu zelan bizi zen jendea baserrietan eta hirietan, euren bizimoduak, euren jateko ohiturak, garbitasunezkoak, janztekoak... Badaude liburuak horren gainean.

“Eleberri historiakoaren idazleak ikuspuntu berri bat eman behar du”

—Milaka orrialde irakurtzeaz gain, zelan ikertzen duzu? Oker ez banabil, zure eleberriak gertatzen diren lekuetan egotea gustatzen zaizu...

—Bestela, mendiak ipiniko nituzke ez dauden lekuetan! (Barre). Bai, gustatzen zait tokietara joatea. Zailena, orain arte, Anboto izan da. Pentsa, amama erretzaila eta sekula mendira joaten ez dena...

—Zertan zabilta orain?

—Agoteen gaineko eleberri bat idazten ari naiz. Baina ez XVII. mendeko agoteen gainean, dagoeneko ezagunak diren topiko guztiakin. Bestelako ikuspuntua emango dut nik. Ze eleberri historikoak —eta hau azpimarratu gura nuke— zeozer berri eman behar du, ez da nahikoa gertakari bat deskribatzea. Niri batek esan zidan eleberri historikoa idaztea data batzuk eta gertakari batzuk hartzea eta bete lana egitea baino ez zela. Ez, bada. Egongo da hori egiten duenik, baina nire ustez eleberri historikoaren idazleak ikuspuntu berri bat edo hipotesi bat eman behar du. m

Erandioko agiria

Bakean eta demokrazian oinar ritutako elkarbizitzaren oinarriak

Udlean ordezkariak duten alderdi politiko guztiek, Alderdi Popularrak izan ezik, “TOPAGUNEAK BILATUZ / BUSCANDO PUNTOS DE ENCUENTRO” agiria hitzartu eta gaur egun ezohikoa den irudia kaleratu dute.

Erandioko EAJ, PSE, Batasuna, EA eta Ezker Batua taldeetako ordezkariak joan den urte osoa eman dute harremanetan bakean eta demokrazian oinarritutako elkarbizitzarako oinarriak hitzartu nahian. Ipar Irlandara ere joan ziren, hango esperientziatik zer edo zer ikastekotan. Handik itzuli eta oinarritzko testu bat adostu ondoren, herriko kultura eta kirol elkartei, sindikatuari, parrokiei eta gainontzeko gizarte eragileei aurkeztu zieten beren ekimena eta proposamena. Oso harrera ona jaso duela esan daiteke. Agiriarekin bat egin, sinatu eta hartutako konpromisoa jendaurrean erakusteko ekitaldi ofiziala egin zuten 2002ko abenduaren 14an Josu Murueta Kultur Etxean. Bertan, alderdi politikoek eta gizarte eragileek (60 bat taldek sinatu dute agiria) ondorengo konpromiso hauek hartu zituzten.

ERANDIOKO AGIRIA

1. Proiektu politiko guztientzat berdintasun demokratikoa defendatzea eta proiektu politikoak inposatzeko zein oztopatzeko bortxazko jokabide oro baztertzeara.
2. Herriek bere egituratzeko politikoa, barnekoa zein kanpoko, demokratikoki aukeratzeko eskubidearen defentsa berrestea, bizikidetzaren oinarri gisa.
3. Euren giza eskubideen zein eskubide zibiko eta politikoen urraketa pairatzen duten pertsona guztiekiko elkartasun aktiboa eta errekonozimendu etiko, sozial eta materiala adierazteko ekimenak garatzea, eratzten den udal agintea, edo udalerriko indar-banaketa dena delakoa izanda ere.
4. Herri honi marko demokratiko bat eskaintzeko lanean jardutea, euskal gizarteari, bere egungo estatus juridikoa edozein delarik ere, nazioarteko deklarazioetan jasotako eskubide individual zein kolektiboak bermatuko dizkion markoa.
5. Herritarrek politikan parte hartzeko eta ordezkariak izateko duten eskubidea modu askean erabiltzeko aukera sustatzea eta bermatzea udalaren esparruan, aukera politiko guztiak errespetatuta, eta gerta daitezkeen ekintza ez legitimo, mehatxu, larderia zein eraso ororen aurrean, pertsona horiek politikan jardutea modu solidarioan bermatuta.

Sinatzaileek esandakoak



MIKEL ARIETA-ARAUNABEÑA (EAJ)

“Elkarrizketa = politika. Horixe izan da gizarte dinamiko eta aldakor honetan zilegizko diren desberdintasunak konpontzeko geure egin dugun tresna: aurreiritzirik gabeko elkarrizketa, elkarrizketa zintzoa, elkarrizketa ez-baztertzalea, eta tresna hori erabiltzeko konpromisoa.

Ahalegindu gara herri mailatik ekarpen bat egiten, eta Erandioko Agiria eta bertan jasotzen diren ondorioak ondarea izan daitezkeen arazoak elkarrizketaren bidez konpontzeko ahaleginarekin bat egiten duten Erandioko herritar guzti-guztietzat, eta, aldi berean, blindatuta egon daitezkeen talde politiko zein sozialen estrategien eta unean uneko baldintzen aurrean.

Asper-asper eginda nauka ditudan 38 urteotan arazo batekin bizi –bakoitzak bere ikuspegitik jarri nahi dion adjektiboa jarrita–, arazo horri buruz hitz egiten entzun beti, eta oraindik etorkizun baikorrik gabe jarraitzeak. Horregatik, politikariok dugun guztia jarri behar dugu atzetik datozenek beste era bateko harremanak izan ditzaten. Etorkizun hobea izan dezaten esan nahi dut, eta nik neuk Euskadi hobea esango dut”. 4



JOSEAN PÉREZ PSE-EE (PSOE)

“Erandioko sozialistak harro gaude dagokigun erantzukizuna geure gain hartu dugulako; guk geure hondar alea eskaini nahi izan diogu gizarte honi, tolerantzia, askatasuna eta aniztasunarekiko zein giza eskubide guzti-guztiekiko errespetua horren beharrezko dituen gizarteari, aldarrikatzen dituen eskaera bakezaleei kasu egiteko premia duen herri honi, bera baita benetako protagonista.

Ez dugu beldurrez egin gure apustua, ezta arinkeriaz ere, etikoki baizik, eta Erandion gertatzen den bezalaxe, inposaketarik gabe eta bata bestearekiko errespetuan bizi daitekeela sinisteko borondate tinkoa gugan dugula.

Bereizten gaituena ezagutzen dugu, eta horrek ez garamatza inora; horregatik, batzen gaituenak eraman gaitu ibiltzen hasi behar genuela sinisterra. Guk baikor izan nahi dugu eta Herri honetako herritar bakoitzak hausnar dezala ea BAKEAN bizitzeko aukera bat eman ote diezaiokegun elkarri, gure ondorengo belaunaldiek merezi dute eta”. 4



IZASKUN TRABUDUA (EA)

“Euskadin bizi dugun gatazka politikoak desadostasun iraunkorrean gauzka; desadostasun horren ondorioz, Euskal Herrian ezinezko gertatzen da banaezinak diren “Bakea eta Askatasuna” garatzea –duten esanahirik unibertsal eta zehatzenean. Erandion sinatu dugun agiria birtualtasuna honetan datza: elkarrizketa topagunerako bide bakartzat jotzeaz gain, elkarrizketa bera gauzatzean, eta bide horrek guztiok geure burua onartutzat sentitu dugun punturaino eraman gaitu. Orain, desadostasun puntuen gainean lan egiteko gai izatea falta zaigu, hori baita bazterketarik gabeko edozein elkarrizketa irekiko prozesuren helburu. Erandionko urratsak ezinbesteko eta beharrezko den bide baten jartzen gaituela eta Euskadin gatazka konpontzeko lanabes bat ematen duela uste du Eusko Alkartasunak. Egindako hausnarketa eta baieztapenetan urrutiago ere joan gitezkeen, baina guztiok onar dezakegunera egokitu behar ditugu denborak eta ekintzak. Agirian sakontzeak eginkizun eta epe berriak ezartzea ekarriko du, eta gizabanako zein kolektibo legez Bakerantz eta Askatasunerantz aurrerapausoak egiteko bidea irekiko”. 4



AINTZANE ORBEA (Elkarri)

“Sarri askotan herritarrok etsipenean murgildurik egon gara, bortxakeria eta askatasun ezarekin bizitzea gure betiko zigorra balitz bezala. Nire ustez, indar politiko guztien ohiko adierazpenek ere etsipena areagotzen dute. Hori dela eta, pozaz eta ilusioaz jaso dut Erandioko zinegotzietatik adostutako agiria. Seguru asko guztiek utzi behar izan dute zeozer alboan eta horregatik eskertu nahi diet ahalegina. Jakin badakit gaurko egoera gainditzeko prozesu luzea garatu behar dela, baina agiri honek helmuga horretara ailegatzeko abiapuntu sendoak eskaintzen dizkigula uste dut”. 4

EMILIO FRUTOS (Ezker Batua)

Udlean ordezkariak dugun alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bana joan ginen Ipar Irlandara eta herrituta geratu ginen bidaia horretan ikusitakoarekin: biktimen elkarteak protestantei zein katolikoei egiten die harrera, bereizketarik egin gabe. Agintarien karguak bikoiztuta daude, esaten zuten elkar ikuskatzeko, eta adostasunera iristeko.

Ikastetxeetako eta auzoetako bizimoduaren parte dira arantzadun alanbradak, burdinazko ate erraldoiak eta kaleak ixteko hiru metrotik gorako harresiak... eta, aldi berean, lanpostuetan elkarren ondoan aurkituko dituzu alde batekoak eta besteak, diruak ez omen du-eta politikaz ulertzen. 4



FELIPE FERNÁNDEZ (Batasuna)

“Udlean ordezkariak dugun alderdi guzti-guztiak hasi ginen herrian elkarbizitzarako dauden arazoak aztertu eta horren gaineko hausnarketa egiten. Bide horretan aurrera egiteko asmoz, Ipar Irlandara joan ginen hango egoera, han hartutako akordioen inguruko jarrera eta ikuspuntu desberdinak alde guztien ahotik ezagutzera. Irlandak asko irakatsi digu: zein garrantzizkoa den gizarteko eragileek gatazkaren konponbidean esku hartzea; elkarrizketa dela bidea, eskubide individual eta kolektibo guzti-guztiak onartzea dela helburua eta burujabetza eskubidea bakerako giltza dela. Horixe da gure herrikideei adierazi nahi izan dieguna, eta uste dut lortu ere lortu dugula”. 4



JESUS FERNÁNDEZ (Astrabudua DBHI)

“Hezkuntza arloan gatazka–ebazpena gure laneko alde garrantzitsuenetarikoa bat da. Nerabe bati, eta nagusi bati ere, arrazoi osoa, egia absolutua existitzen dela sinistaraztea zaila da. Denok arrazoi eta egia horren zati bat daukagu. Horregatik, gatazka–ebazpenean, konponbiderik ez da aldi bati arrazioa ematea eta besteari ukatzea, elkarrizketa baizik.

Elkarrizketak bitarte amankomunak bilatzen, aurkitzen, laguntzen digu. Elkarrizketak gure izate berezkitik iriterra eta beste errealitatetan kokatzera laguntzen digu eta, honela, gure planteaketak erabatekoagoak, bideragarriagoak eta erabakigarriagoak dira.

Horregatik, gatazka batean konponbide hobereana elkarrizketa da eta topaketa-puntuak bilatzea geletan eta bizitzan gure elkarbizitzarako bide xederatua ere. 4



TXUS GARCIA (Atxazpe mendi taldea)

“Alderdi politiko guztiek onartu eta herritarrek babestu duten Erandioko udalaren ekimena eredarri izan beharko luke gainontzeko udalentzat ere, Euskal Herrian bizikidetzara eta bakea lortzeko bide bakarra baita. Badakigu adostasunera iristea ez dela batere erraza izan eta horregatik da, izan ere, baliotsuagoa.

Eta ez digu kezka handirik sortarazi behar PP-k agiria ez sinatzeak, ezer gutxi egin baitezakete herrikoak ez diren zinegotzietatik.

Erandioko elkarte eta herritarrek benetan eskertzen dugu kasu honetan politikariak egin duten ahalegina, era honetako akordio bidez baino ez baitugu elkarbizitza baketsua lortuko”. 4

Eskualdetik kanpokoakaz berbetan, zenbat bider entzun dugu “a, zu Costa Ricakoa zara orduan”? Aberats izatearen edo, behintzat, gainerakoek baino bizi-maila altuagoa edukitzearen ospea daukagu Euskal Herri osoan. UK-k topiko horren atzetik dagoen errealitatea aztertu gura izan du, ea zenbateraino den egia. Horretarako, hainbat arlo-tako datu ekonomikoak jaso ditugu; bai aberastasuna, bai pobrezia adierazten dutenak. Eta, azterketa sakonago baten faltan, ondorio honetara ailegatu gara: ez gara batzuek uste duten bezala aberats-aberatsak, baina kasu honetan topikoa ez dago egiatik hain urrun, hainbestera ez bada ere.

Hain aberatsak ete gara?

Uribe Kosta = Costa Rica ?

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Askotan, Getxo Uribe Kosta osoaren eredutzat hartzen da. Hortik dator, beharbada, Costa Rica esamoldea. Egia esan, Getxo oso hiri aberatsa da. Are gehiago, Estatu espainiar osoan bizi-mailarik handiena daukan bigarren hiria da, Donostiaren atzetik. Auto (edo bestelako motordun ibilgailuetan) kopuru handia dauka, bi biztanleko bat

Uribe Kostako gainerako herriek 7 edo 8ko indizeak daukate; Bizkaian, arruntena 6 edo 7 edukitea da. Beraz, besteen antzera baina apur bat hobeto gabiltzala esan liteke.

Jakina, herri batek maila ekonomiko oparoa edukiteak ez du esan gura herri horretako biztanle guztiak maila horretan dabilzanik. Begira diezaiegun, esate baterako, langabezia-tasei. Getxok, hain



Auto kopurua (eta auto mota) bizi-mailaren adierazleetakoa bat da

“Bizkaiko maila baino apur bat altuagoa dugu”

baino gehiago, eta per capita errenta handia ere bai. La Caixa banketxeak urtero argitaratzen duen txosten ekonomikoan (ikus alboko orrialdeko koadroa), Getxok indize altuena dauka: 10. Bizkaia osoan beste lau udalerririk baino ez daukate hain maila altua, eta estatu osoan ere gutxiak.



Oinarrizko errenta jasotzen dutenak

- Barrika.....6 familia (6 perts.)
- Berango...23 fam. (48 perts.)
- Erandio.344 fam. (821 perts.)
- Getxo...624 fam. (1301 perts.)
- Gorliz.....26 fam. (41 perts.)
- Leioa....292 fam. (674 perts.)
- Lemoiz.....6 fam. (9 perts.)
- Plentzia....32 fam. (58 perts.)
- Sopela....65 fam. (138 perts.)
- Urduliz24 fam. (53 perts.)

Pobreak ere badaude, egon

Eskualdeko udaldiru guztietako gizarte zerbitzuetara jo dugu Uribe Kostan pobrezia asko ugalduta dagoen jakiteko asmotan, eurak dira-eta egunero behartsuenakaz harremanean dabilzanak. Hasteko, oinarrizko errenta kobratzen dutenen kopuruaz itaundu diegu (datuak goian ikus ditzakezue). Laguntza hori oinarri-oinarrizko beharizanetarako ematen da, teoriarik. Hau da, jatekoa erosteko batez ere. Pertsona bakar batentzat, diru kopurua 426,38 eurokoa da hilean (71.000 pezeta inguru), eta handituz doa familia handiagoa den heinean. Lau lagun edo gehiagoko sendiek, esaterako, hileko 658 euro hartzen dituzte (110.000 pezeta-edo).

“Larrialdietarako dirulaguntzen aurrekontua urtero xahutzen da”

zuzen, eskualdeko tasarik altuenetako bat dauka: %3,1. Langabetu gehien duten herriak Erandio eta Leioa dira (%3,9); gutxien dituenak, Barrika (%2,1). La Caixa datu hauek argitaratu zituen garai bertsuan, Hego Euskal Herriko tasa osoa %7,45ekoa zen. Zeuek atera kontuak.

Larrialdi egoerak

Uribekostar askok instituzioen laguntza behar dute eguneroko bizimodua atera ahal izateko. Goiko koadroan ikus ditzakezue oinarrizko errentari dagozkion kopuruak (batzuk 2001ekoak dira, besteak 2002koak). Horrez gain, larrialdietarako dirulaguntzak daude, jeneralean hipoteka edo alokairu gastuei aurre egiteko ematen direnak. Gizarte zerbitzu guztietako langileek adierazi digutenez, larrialdietarako laguntza horiek inoiz ez dira nahikoak. Urtero-urtero aurrekontua xahutzen da, eta ez da heltzen jasotzen diren eskari guztiak asetzeko. Aberatsak? Baliteke, baina... m

Indizea eta per capita errenta

La Caixa urtero argitaratzen duen txosten ekonomikoan, Estatu espainiar osoan 1000 biztanle baino gehiago dauzkaten herrien azterketa plazaratzen da. Gure eskualdetik guztiak sartzen dira, Lemoiz izan ezik. La Caixa indize ekonomiko bat ematen dio herri bakoitzari. Hona hemen Uribe Kostakoena, eta biztanle bakoitzaren urteroko errentari dagokion zer esan gura duten:

- Getxo10 (13.000 eurotik gora)
- Barrika, Gorliz, Plentzia, Sopela....8 (11.400-12.000)
- Berango, Erandio, Leioa, Urduliz.....7 (10.180-11.400)

TRUK

KIROLAK

AUPA!
ATHLETIC



KAMISETA

HELDUEN NEURRI GUZTIAK
S • M • L • XL • XXL

54,06 €

EUSKAL SELEKZIOA



KAMISETA

HELDUEN NEURRI GUZTIAK
S • M • L • XL • XXL

51,03 €



BEI BEZAGAZU ETA EGUN GUTXI BARRI
ZURE ETXEAN

3,67 €
BIDALKETA
GASTUAK

dirtu!

TRUK

902 45 12 12

IRUÑEA • EUSKAL HERRIA

Goi mailako beharri

Izugarriko zirrara ematen du eta sabelean horrelako kilimak eduki ohi ditugu airean edo lurretik hainbat metrora gaudenean; ohiturarik ez dugulako gertatzen ote zaigu? Baliteke. Dena den, gure inguruan badira objektuak edo afizioz, sentsazio horiek aspalditik sentitzen ez dituzten hamaika pertsona.

Testuak: Jon Urresti & Unai Bragado. Argazkiak: Asier Mentxaka



“Egun argietan Sollube eta beste mendi batzuk ere ikus daitezke”

Sorkunde Yurrebaso. Bizkaiko Zubia Iggogailuan gora eta behera

Sorkunde Yurrebaso berangoztarrak bederatzi urte daroaz Bizkaiko Zubian beharrean. Duela lauzpabost ipini zuten zubiaren gainean oinezkoentzako pasabidea, 50 metroko altueran, eta ordutik hainbatetan egokitu zaio Sorkunderi bertaraino igotzea. *“Ikastetxeetakoak bisitan etorten direnean, neu igotzen naiz eurekaz igogailuan, zubiak eta inguruaz azalpenak emateko”*. Hasieran, zorbio apur bat ere sentitzen zuen, *“lehenengo egunetan baino ez, gero ohitu egin nintzen”*, baina ez goian egonda, igogailuak egiten duen ibilbidean baizik: *“Sentsazio arraroa da, kristala dago tartean eta ikusten duzu igotzen ari zarela”*.

Sorkunderen ustez, Bizkaiko Zubia da Uribe Kostako eraikinik garaiena. Pasabidetik –berak gutxitan zeharkatzen du, igo eta jaitsi ibiltzen da eta– ikuspegi ederra dago. *“Egun argietan Sollube eta beste mendi batzuk ere ikus daitezke”*, diosku Sorkundek. m

Alfonso Angulo. Parapentezalea Askatasun egarriz

33 urteko bilbotar hau Sopelan bizi da. Aisialdian bere parapentea hartzen du eta mendi baten bila doa tontoretik hegan egitera. Mendizalea denez, parapentea mendiarekin uzartzeko aukera ikusi zuen Alfonsok orain 15 urte; harrezkeroztik sei parapente eduki eta ia guztiak gordetzen ditu. *“Arrisku-kirol hau ez da oso arriskutsua”*, diosku berak, *“gainera hasi nintzenetik asko aldatu da: orain 15 urte tresna hauek gutxiago egiten zuten hegan eta doi-doi zazpi kilo pisatzen zituzten; egun, 20 kilo baino gehiagokoak daude”*. Esan digunez, ekipamendu osoak 3.000 euro balio ditu. Kirol hau egiteko lau leku gomendatu dizkigu Alfonso Angulok: Jata mendia, Urduña, Anboto eta Sopela. Hain zuzen ere, kirol honetaz ondo gozatzeko haize-lasterak kontrolatzen jakin behar da. Sopelako *Airetik* elkarteko kide honen berbetan, *“parapenteak askatasun sentsazio izugarria ematen dizu, inoren eta ia ezerren menpean zaudelako”*. m



“Parapenteak askatasun sentsazio izugarria ematen dizu”



“Han goian askatasun handia dago”


Ignacio Burgaleta. Hegazkin-pilota Ortziko askatasuna

Salamancaraino jo behar izan zuen 26 urteko aretar honek hegazkinetako pilotu izateko ikasi beharrekoa ikastera. Hainbat urteko ikasketen ostean, pilotu komertziala izatea lortu zuen, baina oraindik ez du lanik topatu horretan, *“Zain nago, ea konpainiaren batetik deitzen didaten”*. Bitartean, duela urte bitik hona, beste batzuei irakasten dihardu Sondikako aireportu zaharrean dagoen Bizkaiko Real Aero Club delakoan. *“Han goian askatasun handia dago, eta dena desberdin ikusten da. Sentsazio bitxiak dira”*. Txikitatik datorkio hegaz egiteko grina, dioenez: *“Oso lanbide ederra da hau”*. Eta zelan ikusten da mundua 1500 metrotik? *“Hasteko, igerilekua zein etxetan dagoen jakiten duzu, je, je. Kotxe karabanak ere ederto ikusten dira. Orohar, behean ikusten ez diren xehetasun batzuek jabetu zaitezke”*. Ignaciok dioenez, ez du inoiz beldurrik eduki, hegaldia oso ondo prestatzen direlako, *“baina beti edukiten da gogoa arriskua, txikia izanda ere, badagoela”*. m

Alberto Posada. Lan bertikalak. Errespetu osoz

Bilbokoa da, baina duela urte bi egunero Sopelara etorri eta bueltatzeaz nekatu zen, eta bertan geratzea erabaki zuen. Albertoren jardunbide gehienak altueratan izaten dira. Asteburuan, lan bertikaletan egiten du lan; teilatuta igo - *“jeneralean, inoiz eraikina eskalatzea ere tokatzen da”* -, sokatik eskegi, eta dena delakoa egin: *“Lanbide asko menperatzen ditugu. Igeltseroak gara, margolariak, telefonia instalatzaileak...”*.

Asteburu bat baino gehiagotan, eskalada irakaslea da Euskadiko Mendi Federazioak antolatzen dituen ikastaroetan. *“Akonkaguara ere joan izan naiz”*, dio. Horrez gain, parapente irakaslea izan zen Sopelan zortzi urtez, baina utzi egin zuen eta azken hamar urteotan hegaldia egiten ditu biplazatan, profesionalki hori ere. Albertoren ustez, *“errespetu handia eduki behar zaio altuerari. Eta errespetua, hain zuzen, grabitatea existitzen dela jakitean datza”*. Kontuan hartzekoa, bai. m



“Errespetu handia eduki behar zaio altuerari”

zineeskola

Oskar Fernández

Zerikusirik badago
zinema eta
magiaren
artean?

P rintzipioz ez du ematen bata eta bestean artean loturarik dagoenik. Lehenik eta behin, magia gizakiaren hainbat sinesmenekin lotuta dago; zinema ordea, artea ez ezik asmakizun zientifikoa ere bada, hain zuzen ere Lumière anaiek lehen aldiz gauzatutakoa. Ikuspuntu honetatik begiratuta ez daude elkarrengandik bat ere hurbil. Magia egin gabe baina irudimen handia erabiliz, jar gaitzen gu Altamirako kobazuloan, 40.000 urte Kristo aurretiko garaian, eta hango gizaki baten esku trebeak margotutako zortzi hankako bisontea ikusiko dugu harrিতuta. Zergatik zortzi hanka, -galdetuko dugu- irudigileak lau hankaduna zela ondo baino hobeto baldin bazekien? Erantzuna erraza da: historia aurreko gizaki hark mugimendua irudikatu nahi zuelako. Egin dezagun aurrera gure ibilbide fantastiko honetan. Gure garaira hurbiltzen hasiko gara eta duela 1200 urteko faraoien garaian, Ramsesen garaian hain zuzen ere, egingo dugu geldialdia. Faraoi honek tenplu baten kanpoko aldean irudi baten mugimenduen faseak grabatzeko agindu zuen: norbait handik zaldi gainean abiadura handiz igarotzen baldin bazen aipatutako irudia mugimenduan bailitzan ikusiko zuen. Bi adibide hauen bitartez gizakiak bere inguruko gauzak, bai eta ametsak ere, ahalik eta errealitate-antz handienaz irudikatzen saiatu dela ikus dezakegu argi eta garbi. Hortaz, 1895 urteko neguko arratsalde ilun batean nahiak eta errealitateak bat egin zuten pantaila zuri batean, Lumiere anaien eskutik. Zinema aretoan filma hasten denean argitasun bakarria pantailatik dator, bai eta soinu bakarria ere; erosotasunez jesarrita gaude, eta ekintza hipnotiko antzekoa hasi da: hortxe dago magia, gure antzineko arbasoen buruan zegoena. 4

Oscarren lasterketa abian

Martxoaren 23an sarituko dira 2002ko pelikula eta zinemagilerik **onenak** omen direnak



Argazkian, Roman Polanski

Martxoaren 23an, betiko parafernalia guztiaz hornituta, mundu osoa begira jartzen duen Oscar sari ospetsuen banaketa egingo da. Aurtengo edizioan ustekabe gutxi egongo dela dirudi, izendapenen batek ala bestek zer esana sortu duen arren. Aktore hoberenak, bai gizon bai emakumezkoetan, ia betikoak dira: Jack Nicholson, Nicholas Cage, Daniel Day-Lewis, Nicole Kidman, Renée

Zellweger, Julianne Moore... Ondo deigarria da, bestalde, *Erastumen Jauna* trilogiaren bigarren zatiko filma onenen artean lehiatzeko aukeratu duten arren, ez direla sarietarako izendatu ez honen zuzendaria, ez aktore nagusi bakar bat, ez eta gidioia ere. Bestalde, ikusminik handiena sortuko duten kontuen artean, AEBetara joan barik 20 urte baino gehiago daramatzan Roman Polanski zuzendaria

Ez galdu > "Akai hashi noshitano nurui mizu"

Zinema Paradiso • Non: Getxo Antzokia • Noiz: martxoak 14, barikua • Ordua: 22:00



Nazioarteko zinematografian oso ezaguna da Shohei Imamura japoniar zuzendaria. Gizon honek Canneseko Nazioarteko Zinemaldian urrezko palma birritan irabazi du: 1983. urtean "Narayamako balada" filmarekin, eta 1996. urtean "Aingira"rekin. Hitz labur hauekin gomendatzen dizuegun filma 2001. urtean, hirurogeita hamabost urte zituela, egin zuen: "Ur epela zubi gorri baten azpian". Istoria hau ipuin xarmangarri eta fantastikoa baino askoz gehiago da. Film liluragarri eta erakargarri honen bidez Imamura lau haizetara hedatzen du ideia unibertsal eta eder hau: utopia bazterrezina da, merezi du honen alde borrokatzeko bizi izatea eta ez dugu inoiz amore eman behar. Film honek, Imamura jaunak egindako beste hainbatek bezalaxe, emakumeen barruko indarra eta kemena oso era maitagarrian islatzen du.

Argazkian, Shohei Imamura zinema zuzendaria

Gaia > Korrikaren kanta



Argazkian, kantuaren sortzean parte duten kideak

Korrikaren 13. edizioko abestia otsailaren erdialdean aurkeztu zuten Donostian egindako ekitaldi baten bidez. Igor Elortza bertsolari durangarrak idatzitako letran oinarrituta, Bingen Mendizabal konposatu du dagoeneko gehienok ezagutuko duzuen doinua. Ahotsa, berriz, euskal abeslari historiko bik ipini dute: Ruper Ordorika eta Mikel Laboa.

Letrak fonetika berezia eskaintzen dio belarriari. Elortzak adierazi duenez, herria eta geroa berbakaz jokatu gura izan du, aldi

berean apirilean hasiko dena hamairugarren Korrika dela gogoraraziz. "Ez dok hamairul Ez da malefiziorik! Herri bat! Herri bat osorik! Gero bat! Gero bat gaurdunik", dio pasarte batek. Garai bateko euskal kulturaren gorakadari keinu eginez, etorkizunaren garrantzia azpimarratzeko asmoa eduki du Elortzak. Eta antza, lortu egin du. Abeslariak, behintzat, pozik agertu dira. Eta, zenbaitek diotenez, letraren zati batzuk Laboak bere garaian ospetsu bihurtu zituen *Lekitioren* antzeko samarrak dira. m

diskoak

Antenna
Split 77
Gaztelupeko Hotsak



Bilbotik datorren talde berri honek beste ikuspuntu bat eskaintzen digu, popa eta rocka musika elektronikoarekin nahastean dituztelako. Bere lehen lanaren abestiak emozioz, gustu onez eta sentsibilitate berezi batez beteta daude. Gainera, erromantizismo kutsua dute eta horrek generoaren talde handiak gogorarazten dizkigu.

The Essential
Janis Joplin
Sony



Bizirik egongo balitz, rockaren historian dagoen Texas-ko abeslari honek 60 urte beteko lituzke urtarilaren 19an. Hori gogoratzeko bere 30 kanturik ezagunenak eta Woodstock-eko grabazio mitikoa biltzen dituen disko bikoitza kale-ratu dute. "Mercedes Benz" abestiaren moldaketa berri bat ere aurkitu dezakegu.

We're a happy family
Batzuen artean
Columbia



New York-eko Ramones taldea punk-aren aitzindaria izan zen bere abesti motz eta azkarrekin. Tamalez, taldekide bi orain gutxi hil ziren. Haien omenez Ramones-en kanturik arrakastatsuenak grabatu dituzte egungo hainbat taldek: Green Day, Kiss, Pretenders, U2, Offspring, Garbage, etab.

Diskoa > MP4
jazza kultur
etxearen eskutik

Getxoko Europar Jazzaldiak iazko edizioaren talde irabazlearen diskoa argitaratu berri du. MP4 taldearen konpaktua

osetzen duten sei abestiek zazpi minutu baino gehiagoko iraupena dute. Finlandiako banda hau laukote bat da eta Mikko Pettinen tronpeta-joleak, Tuomo Prättälä piano-joleak, Ville Huolman baxu-joleak eta Toni Porthen bateria-joleak osatzen dute. Bestalde, Getxoko 26. Jazzaldiak lau musika taldeen partaidetza eduki zuen lehiaketaren azken fasean.

Kontzertua >
musika klasikoa

XIV. Emakumearen Jardunaldietan "III. Emakumeak Musikan" jaialdia ospatuko da martxoaren 10ean. Mujeres en la Música elkarteak Antonio Arias (xirula), José Luis Rodrigo (gitarra) eta Dimitar Furnadjiev (biolontzelo) elkartzeko ditu Areetako Andrés Isasi musika eskolan. Kontzertua arratsaldeko 8etan hasiko da, eta sarrera dohainik izango da.

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Katebegiko hurrengo begia

LAGUN batek oparitu zizkidan biak. Hari beste lagun batek gomendatu zizkion eta neu izan naiz katebegiko hurrengo begia. Annie Ernauxenak dira biak; Igela argitaletxeak euskaraturiko *Pasio hutsa* batetik, eta berriki Tusquetsek kaleratu duen *El lugar* bestea. Ez dira obra luzeak, biak elkartu eta ozta-ozta osatuko lituzkete ehun orri. Baina ez da hori liburutatik inpresionatu nauena. Haietan idatzitakoak, horrek bai irabazi duela nire arreta osoa. Gizon ezkontubatekin maitasun istorio indartsua bizi duen emakume baten gogoetat jasotzen ditu lehenak. Ernauxen obra gehientsuenak bezala, badu eduki autobiografikorik. Baina ez dezala morboak geure adimena ilundu. Ez litzateke bidezkoa; liburuak ez luke horrelakorik merezi. Gera gaitezen hitzei darien zehaztasunarekin, askotan sentitu bai, baina geure buruei -are gutxiago inguruan dituguneei- esatera ausartzen ez garen kontuak naturaltasun handiz kontatzen baititu Ernauxek. *El lugar*, berriaz, alaba eta guraso batzuen arteko harremanaz mintzo da. Jada emakume heldua den protagonistak, aita hiltzen zion gunean, iraganeko gertaturikoak oroitzeari ekingo dio. Zenbat urte igaro genituen elkarrekin, eta bata bestearentzat zeinen ezezagunak izaten jarraitzen dugun, ondorioztatu dute nobela bietako pertsonaiek. Espero dugun seinalea noiz iritsiko zain, baina hura ez da inondik ageri. Zer pentsatu eman didate Annie Ernauxen liburuak. Zuei ere gogoetaren bat piztea espero dut, zuek baitzarete lagunaren lagunak hasi, lagunak jarraitu eta nigana etorri den katebegiko hurrengo begia. 3

Udaberrian irakurtzeko

2003k euskarazko nobela interesgarriak dakartza; hona hemen batzuk

2002 urtean gehien saldu ziren liburuez berba egin genizuen aurreko UKn. Oraingoan, aurton salduenetakoak izateko aukera asko dauzkaten zenbaiten gainean arituko gara. Otsaila eta maiatza bitartean argitaratuko diren eleberririk deigarrienetako batzuk komentatuko ditugu. m



Xabier Montoiak *Denboraren izerdia* kaleratu berri du

1- Denboraren izerdia> Otsailean argitaratu da Xabier Montoiaren azken eleberria. Bizitzan arrakasta lortu duen gazte bat da pertsonaia garrantzitsua; kontakizunaren ardatza, beraren gainbehera.

2- Van't Hoffen ilea> Unai Elorriaga *SPrako Tranbiaren* arrakastari eusten ahaleginduko da bigarren eleberririk honetan. Bere-berea duen estiloan, Unai istorio bitxiz eta pertsonaia harrigarritz betetako narrazioa egin du. Martxoan argitaratuko da.

3- Romain zen bere izena> Joxean Agirrek literaturaren gaineko hausarketa eta emakumea uztartu ditu bere hirugarren eleberrian. Lan honek bere nortasuna ezkutuan gorde gura duen idazle baten istorioa kontatzen digu. Apiriletik aurrera egongo da eskuragarri.

4- Uda betiko balitz> Liburu askoren idazle eta sari askoren irabazle den Xabier Mendiguren Elizegi umezaro eta nerabezeroaren gorabeheren inguruan gorpuztutako narrazio interesgarria dakarkigu oraingoan. Apirilean argitaratuko da.

5- Agustín Zubikarai saria > Maiatzean ikusiko du argia Ondarroako udalak eta Elkarrek antolatutako eleberririk sariketaren irabazleak. Aurtongoa bigarren edizioa da eta, momentuz, ez dakigu nor eroango duen saria. Lan txukuna espero dezakegula ziurra da, ordea.

Telebista >

Zelan neurtzen dira audientziak?

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako etxeetan **300 audimetro** baino ez daude

la egunero kaleratzen dira telebistako saioek daukaten audientziaren gaineko datuak. Oso zenbaki garrantzitsuak dira, gainera, publizitatearen salerosketan oso kontuan hartzen direlako; diru kopuru itzelez ari gara berbetan.

Hala ere, Euskal Autonomia Erkidego osoan 300 audimetro besterik ez daude (Sofresek, neurketa egiteaz arduratzen den enpresak, ez du Nafarroako daturik ematen), eta Estatu espainiar osoan, 3300 inguru. EAEn, guztira, 862 lagunek ikusten dutena neurtzen da, eta hortik abiatuta kalkulatzen da guztiok ikusten duguna. Neurketarako, beti ere, lau urtetik gorakoa bakarrik hartzen dira kontuan.

Telebistako mandoaren bidez Audimetroek telebistako mandoaren bitartez jasotzen dute informazioa. Etxeko pertsona bakoitzari letra bat egokitzen zaio; pertsona horrek letra horri dagokion botoia sakatu behar du telebista piztu edo amatatzen duen bakoitzean, edo beste ba-



rik telebista piztuta dagoen gelara sartu edo irtetea. Audimetroa gai da telebista piztuta dagoen, zein kate ikusten ari den, inor teletestoa erabiltzen ari den, edo bidez-oz zeozer grabatzen ari den jakiteko. Egunean 24 orduz egiten du lan hori, eta gaueko Sofresen ordenagailu nagusira bialtzen du bildutako informazioa.

Audimetroak banatzeko orduan hainbat gauza hartzen dira kontuan: etxearen maila sozioekonomikoa, eremu geografikoa, hizkuntza... m


Ikusi >

Ikusgela

Hezkuntza munduari dago zuzenduta ordu erdiko saio hau, eta irakasleen, gurasoen eta ikasleen intereseko gaiak lantzen ditu: elkartasuna, sexualitatea, herrien Europa, etab. Hori guztia erreportajeen bidez jorratzen dute saioaren arduradunek. Iñigo López de Aldak aurkezten du, ETB-1en, barikero arratsaldeko bostetatik aurrera, eta zapatuero eguerdi aldean.

Irakurri >

Euskal Herria



Duela bost urte Sua argitaletxeak *El Mundo de los Pirineos* aldizkaria kaleratu zuen. Abentura hori ondo atera zenez, Suakoei aisialdiari buruzko beste aldizkari bat egitea bururatu zitzairen, kalitate


handikoa eta batez ere Euskal Herriari begira. Iazko abenduan *Euskal Herria* bihilabetekariaren lehen zenbakia agertu (eta agortu) zen eta dagoeneko bigarrena kioskoetan daukagu bost euroren truke. Aldizkariak lau gai jorratzen ditu: mendia, kultura, natura eta bidaiak. Euskarazko bertsioa atera gura dute baina horretarako ezinbestekoa dute 3.000 pertsonaren harpidetza.

Harremanetarako: 94 416 94 30

uhinakFM

Getxo Irratia87.6
Koska Irratia89.8
Radio Euskadi92.4
Euskadi Gaztea94.7
Bilbo Hiria Irratia96.0
Tas-Tas Irratia97.0
eitb irratia100.1
Bizkaia Irratia102.6
Euskadi Irratia104.4
Pititako Irratia107.0


liburuak



Stalin

Joseba Arruti
Elkar

Churchill-en biografia argitaratu eta gero, kazetari honek Stalin-ena idatzi du. Erregimen komunista gailurrera eramana eta, aldi berean, betiko zigortu zuenaren bizitza azaltzen da.



Kondoi urrunak

Juan Karlos Merino
Txalaparta

Nork ez du izan amodio ezkuturen bat? Edo nork ez du dastatu zuloen pozoia? Liburu honetan idazle azkoitiarrak zazpi kontakizun erotiko sortu ditu gaztaroko maitasunak gogoratzeko.



Goroto haut

Batzuen artean
Alberdania

Hamabi idazleri istorio motzak egitea eskatu zizkien argitaletxeak gorrotari adarrak zorrotzeko: Unai Elorriaga, Aingeru Epaltza, Arantza Iturbe, Kirmen Uribe eta Hasier Etxeberria, besteak beste.

Gure espezieak >

Luki edo azeria



- **Izen generikoa:** *Vulpes vulpes*
- **Izen arrunta:** *Azeri arrunta*
- **Bertoko izena:** *Luki*
- **Berezitasunak:** 95-130 cm-ko luzera eta 6-10 kg-ko pisua
- **Bizilekua:** Zuhaitziak eta zuhaiska-tokiak

ZELAI BATEN ikusiz gero txakur batekin nahas genezake, baina lukiaren belarriak eta buztan iletsu eta luzea oso bereizgarriak dira. Luki arruntaren kolorea, marroi argi eta gorri artekoa da, eta kokots aldea argiagoa dauka. Aldi berean, ilaje luzea eta ugaria dauka.

Edozein ingurutan aurki dezakegun espeziea da. Bada, kumeak hazi eta babesteko, eskualdeko zuhaitziak eta zuhaiska-tokiak aukeratzeko baditu ere, gaez edozein inguruntetik ibil daiteke, baita gure herrietako kaleren batetik ere.

«Uribe Kostan aurki daitezkeen ugaztunen artean ugariena da»

Haragijalea da eta mikrougaztunak jaten ditu batik bat; baina, baita hezgatzen ere. Udazkenean, oster, fruitu eta basa-garauak ere jaten ditu. Ingurunera moldatzeko gaitasun handia du, eta honela, herrietako zakarretan zein baserrietako oiltategietan ere bila dezake jatekoa.

Abendutik urtarrilara araldian dago. Ondoren, ernaldia dator eta hilabete bi inguru irauten du. Kumaldiak hiru eta bost kume artekoak izaten dira.

Uribe Kostan aurki ditzakegun ugaztunen artean ugariena da luki arrunta. Ez da ikusteko erraza, baina liluragarria da bere uhuri zorrotz eta kirrinkariak entzutea (batez ere, urtarrileko ilargi beteko gauetan, araldian baitago).

Gaia > eguzki panelak Aixerrota institutuan

Eguzki-argia, argi-indar

Bizkaian halako panelak dituzten 26 ikastetxeetako bat da **Aixerrota** institutua

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Energiaren Euskal Erakundeak (EVE) abian ipinitako plan baten ondorioz, Getxoko Aixerrota institutuak eguzkiaren energia jaso eta berziklatzen duten panelak ditu teiltuan.

Panelok energia elektriko bihurtzen du-

te eguzkitik hartutakoa. Argi-indar hori sare orokorrean sartzen da, eta ematen duen etekina banatu egiten da panelak ipini dituzten erakundeen eta ikastetxearen artean. Ikasleek azpimarratu digutenez, baliabide hau erabiliz atmosferara igortzen den CO₂ kopurua gutxitu daiteke. ^m

Eguzki panelak Aixerrota institutuko teiltuetan



Solo ekologikoa

Eguzki-panelez gain, institutuan solo ekologikoa ere badago. Berau ureztatzeko behar den ura sistema independente baten bidez mugitzen da. Lehenbizi, teiltuetatik jausten den ura ontzi batean batzen da, eta ur hori solora eroateko, haize-erota batek eta eguzki-panel batek sortutako energia erabiltzen da.


Sasoia da > Udaberri-lore goiztiarra bere lore beilegiak ikusi eta gozatu daitezke orain



Otsaileko egun hauetan gure erreken bazterretatik ibilalditxuren bat eginez gero, batez ere alde itzaltsuetan hazten den *udaberri-lore goiztiarra*ekin bat egiteko aukera izan dezakegu. Orain irtetzen zaizkio landare honi udaberriaren gertutasunaren berri ematen diguten lore beilegi ederrak, eta hauek ikusteak benetan merezi du. Udaberri-lore goiztiarra landare iraunkorra da eta 30 cm inguru hazten da. Erabilpen terapeutikoak ere baditu, izan ere, lasaigarri moduan edo baita gripea eta bronkio-gaixotasunak arintzeko erabiltzen da. Hala ere, narritadura gastrikoak sor ditzake, dosi handitan hartuz gero. Gure eskualdean, besteak beste Larrañazubin, edo Kandelu eta Ganabarri erreken bazterretan aurki dezakegu.

Mario Pardo > aktorea

“Aktoreek ospe momentu bat daukagu, eta gero igaro egiten da”



Hamar urte daroaz Mario Pardok Uribe Kostan bizitzen

Aspaldi honetan garai bateko ospearen apur bat galdu duela dirudi, baina Mario Pardok lanean jarraitzen du jo eta ke. Euskaldun bategaz ezkondu dago eta Plentzian bizi da duela hamar urte. Ez luzerako ordea. Elkarrizketa hau egiteko momentuan, Mario etxetik aldatzen harrapatu dugu, aurrerantzean Algortan biziko da eta. Hala ere, geugaz berba egiteko tartetxo bat topatu du, eta eskertu egiten diogu.

—Zertan zabilta azken boladan?

—Antzezlan bat grabatu dut, laster TVE-1en emango dutena.

—Zinemarik?

—Azken boladan ez dut ezer egin, baina orain badaukat proiektu bat esku artean. Dena dela, ez zait gustatzen proiektuen gainean ezer esatea aurretik. Hilabete barru-edo hastekoa da.

—Zein izan zen zinemarako egin zenuen azken pelikula?

—Nik uste dut hemen Bilbon egin nuela.

Urte eta erdi izango da, edo bi urte.

—Ez da isilune handiegia izan, beraz...

—Ez, nik ez daukat halakorik, zorionez. Gertatzen dena zera da: aktoreek ospe momentu bat daukagu eta gero hori igaro egiten da. Nik lanean segitzen dut zorionez, eta tira... Kontua da nire lanak ez direla egunkarietan agertzen dagoeneko, ezta?

—Fortunata y Jacinta-n parte hartzeak, besteak beste, markatu egin zintuen...

—Gizatasun aldetik oso pertsonaia era-

kargarria izan zen nirea. Gutun eta deiak zoratu arte jasotzen nituen. Kaletik ibili ere ezin nuen egin-eta! Garai hartan kate bakarra zegoen telebistan, eta guztiok ikusten genuen. Eragina handia zen.

«Akoreen artean ere klase sozialak daude»

—Nahiago duzu oraingo lasaitasuna?

—Ni oso ondo nago, baina ez naiz anonimatoan bizi, eh? Kanean jendeak ezagutu egiten nau. Horrek bere alde atsegina dauka, gauza asko errazten dizkidalako, eta bestetik pribatutasun apur bat ere kentzen dit. Zentzu horretan, nahiago dut lasaitxoago ibili. Zorionez, gutun eta dei uholde hura igaro egin zen.

Aktoreen eskubideak

—Aktoreen interesak defendatzen ere bazabiltza...

—Bai, AISGEko ordezkaria naiz Euskadin. AISGE aktoreen propietate intelektualeko eskubideak kudeatzen dituen erakundea da. Aktore, dantzari, koreografo, eszena zuzendari...

—Iaz Donostiako Zinemaldian egon zineten zeuen aldarrikapenak egiten...

—Espanian orain arte oso lege aurrerakoiak egon dira, aktoreari mesede egin diotenak. Baina ez dago nazioarteko arautegirik, eta hori aldarrikatzen dugu guk. Errodaje batean parte hartzen duten beste langile askoren kasuan, esaterako, arautegia existitu egiten da dagoeneko.

—Lanbide prekariora da orduan, zuena?

—Lanbide baten barruan klase sozial asko dago. AEBetan eta Ingalaterran izarrak dauden bezala, badaude langabezia daudenak edo askoz gutxiago kobratzen dutenak. Eta European beste horrenbeste. ^m

Gorputza > Betiko katarroa

Peru Ruiz medikua

NEGUAN gaude, eta hotzarekin katarroak datozkigu. Katarroa goiko arnasbideetako infekzio bat da, gaixotasun arina, automugatua eta mundu osoan hedatua dagoena. Katarro guztietatik %90 birusek eragindakoa da.

Tratamenduaren aldetik, esan behar da antibiotikoez ez dutela inolako eraginik katarroaren kontra. Ez dituzte sintomak arintzen ez eta prozesuaren iraupena laburtzen ere. Tratamendua, zenbat eta naturalagoa hobea. Ura, zukuak edo infusioak hartuko ditugu sarri, sudur-jarioak biguntzeko, eta eztula eta eztarriko mina arintzeko. Tabakorik ez erretzea ere gomendatzen dute adituek, mukosen irritazioa, mukiak eta eztula murrizteko.

Sukarrari eta ondoezari aurre egiteko paracetamol edo aspirina erabil ditzakegu, baina sintomak arintzeko besterik ez. Eztulak lo egitea galarazten duenean antitusiboak erabil daitezke, normalean xarabe erakoak.

Beste mota bateko sendagaiek (baso-uzkurtzaileak, antihistaminikoak, espektoratazaileak), zientifikoki begiratuta ez dute onura berririk ekartzen, oso erabiliak izan arren. Erremedio arruntak (amaren mimoak, ohean gehiago egotea, betiko etxeko sendagarriak) ez ditugu inoiz ahaztu behar, kasu gehienetan onenak direlako.

Gogoa > fobiak (I) Jakín behar dena

Nagore Etxebarri psikologoa

Hersturaz aritu ginen aurreko UKn. Oraingoan harekin lotura duten fobiak aipatuko ditugu. Hauen kasuan ere ezinegona da sintomarik nabariena, baina fobietan handiagoa da eta egoera zehatzetan agertzen da. Honekin esan nahi dudana da subjektuak herstura handia sentituko duela fobia eragiten dion egoeraren aurrean, bai eta baldintza horretan egon daitekeela pentsatze hutsaren ondorioz ere.



«Agorafobia daukatenez guztiz mugaturik ikusten dute beren askatasuna, ez direlako inora joaten ausartzen»

Gehien gertatzen diren fobia motak agorafobia, fobia soziala eta fobia espezifiko dira. Dena den, hauetatik eratorritako asko daude. Oraingo honetan agorafobiari buruz hitz egingo dugu. Nahaste honetan ihes egiteko zaila den egoera bat da subjektua izutzen duena.

Norberaren burua horrelako egoera batean ikusita, zorabioak, gorakoak, despersonalizazioa edo-eta esfinterren kontrol eza jasan daitezke. Sintomek egoerak bezainbeste beldurra sortarazten dute, agorafobikoaren bizitza baldintzatzeraino, egoera horiek inondik inora errepika ez daitezkeen ahalegintzen dira eta.

Agorafobia daukatenez guztiz mugaturik ikusten dute beren askatasuna, ez direlako ausartzen inora joaten, ez behintzat egongo diren edo igaroko diren tokitik erraz irten ahal izango direla ziur ez badaude. Horrek oso eremu murriztean mugitzera mugatzen ditu pertsona horiek. m



Maite Argaluzaren, Algortan duen B-54 bere zapata-dendan

Maite Argaluzaren > Zapata saltzailea «Puntadun oinetakoak oso erosoak dira»

Askotan ez gara ohartzen baina oinetan ere moda daramagu. Zapaten mundua oso zabala denez, andrazkoen oinetakoez berba egingo dugu; UK-ko hurrengo zenbaki batean gizonen txanda helduko da.

Maite Argaluzarenengana jo dugu. Betican gustatu izan zaio oinetakoen mundua baina orain 10 urte arte ez zuen bere lehen zapata-denda ireki, Algortako Basagoiti kalean; Bilbon beste bat dauka. «*Hasieran nahiko galduta nengoen eta umeentzako eta emakumeentzako zapatak saltzen nituen aldi berean. Orain emakumeentzako oinetakoez arduratzen naiz soilik*», diosku.

Zapatari honek asko bidaiatzen du bere denda bietara marka handiko oinetakoak erateko. Batez ere, Milan eta Parisko zapatak eta berak jantziko lituzkeenak ekartzen ditu. Maiteren gustuak puntadunak dira, takoi apur batekin: «*Oso estetikoak dira, modan egonda zein ez. Niretzat akats bat da pentsatzea zapata estuak deserosoak direla. Iritzi hau nahiko hedatuta dago. Nire ustez on-*

do eginda badaude eta orkoiak oinetara ondo egokitzen badira, inoiz ez dute minik eman behar». Oinetako bat eroso izateko 3-5 zentimetroko takoa eta orkoi ona eduki behar ditu, eta ez du oina estutu behar.

Izaeraren adierazleak

Maite Argaluzaren ustez, «*pertsona bat nolakoa den jakin daiteke bere zapatei begiraturaz, asko esaten dutelako gure nortasunaren gainean*». Esan digunez, negua bota eta botinen garaia izan ohi da eta uda, berriz, sandaliak. Baina denboraldi honetan modan dagoena puntadun zapatak dira orohar. m

«Oinetakoez asko esaten dute pertsonaren nortasunaz»

I
I aki
Bitxitegia
Ω
OMEGA AGENTZIA OFIZIALA
Villamonte T: 4302345
Algorta

Jose Unzurrunzaga Astigarraga

HORTZ?KLINIKA

Tel. & Faxe: 94 460 06 21
Andikoetxe 2, behea ezkerrean
ALGORTA


Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZA -
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a J e s s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarrí 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria Ameztí 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37

UKM,S.L.



BEREHALAKO
MEZULARITZA ETA GARRAIOKAK

☎ 94 430 73 19
Faxa: 94 430 90 18

Elizondo, 1 (Villamonte) • 48991 GETXO

BILBO MICRO




“1982az geroztik
soluzio
informatikoak
eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO
Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

[sarean]

EAE-ren erradiografia

Eustat-en webgunean Euskal Autonomia Erkidegoaz **datu mordoa** aurki daiteke

Internet-ek aukera asko eskaintzen dizkigula entzuteaz nekatuta gaude. Behin baino gehiagotan aukera horiek ezerezean geratzen direlako batez ere. Baina badira webgune erabilgarri eta itxurusoak, adibidez Eustatena.

Euskal Estatistika Erakundeak (www.eustat.es) webgune dotore, argia eta erabilgarria du orain dela zenbait urtetik hona. Hamaika datu aurki daitezke alor askoren inguruan: hauteskundeak, bizimodua, errolda... Eskaintako datu-taulak Internet-en bertan ikus daitezke, edo gure ordenadorera jaitsi, gero edozein kalkulu-orriren bitartez (Excel, adibidez) behar dugun erara moldatzeko.

Webgunea hiru hizkuntzatan dago (euskara, gaztelania eta ingelesa) eta oso



www.eustat.es

erraz nabigatu daiteke edozein nabigatzaile erabiliz, “erabilgarritasuna” beste irizpideen gainetik landuta baitago. Eusko Jaurlaritzako gainontzeko webguneak horrelakoak izango balira... m

webgida

AUTOENPLEGUA

> www.demabiz.com/eusk.html

Lan-bila zabitza? Eta zergatik ez zeure buruaren “jefe” bihurtu? Hor duzu DEMA, Bizkaiko Foru Aldundiak autoenplegua bultzatzeko atera duen programa. Webgunean informazio guztia topatuko duzu.

MARRAZ DEZAGUN

> www.isketch.net

Munduko edozein gizabanakoarekin “pictionary” antzeko honetan aritzeko “Shockwave” dohaineko programa baino ez duzu behar. Inoiz aspertuta bazaude egin ezazu proba, merezi du eta.

FATBOY SLIM

> www.gutterandstars.com

Fatboy Slim ezizenaren atzean Norman Cook musikaria ezkutat-

Sarean aurkitu dugu > Denetarik



Internet-en irudi harrigarrik edo barregarrik topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian argitaratuko ditugu. ukaldizkaria@telefonica.net

KAMILTXO

lehen hartz
euskaiduna!

Kaixo
laguntxo!



27 €
bidalketa gastuak:
4,25 €

DEITU ORAIN

☎ 902 45 12 12

EGUN GUTXIREN BURUAN, ZURE ETXEAN

TRUK

☎ 902 45 12 12
IRUÑA • EUSKAL HERRIA

ALBE alerik ale

Ezohiko plazagizona

Pello Etxebarria > Beti olatuari adi

Sua itzaltzea du ogibide, eta olatuak hartzea pasio, bertsotan egitea, amets eta ilusio. Bere txanda heldu da, berak hala eskatuta; gure urak belztuta daudela eta, Pello betilun sumatu dogu, kezkatuta.

Testua: Josu Arroyo
Argazkia: Asier Mentxaka



“Sasoi batean nirekin haserretzen ziren ez nuelako erdaraz egin nahi”

—Itsasoa hainbeste maite duen batek, zein iritzi du bizi dugun egoeraz?

—Gu txikitatik familiarekin hondartzara joan gara, hemengo jende asko bezala, Algortara, Sopelara... Baina orain geroa oso beltz ikusten dut. Uribe Kostan ehundik gora hegazti hiltzen dira egunero, eta itsaso barruko egoera penagarria da... Instituzioek azken ordura arte oso baliabide gutxi jarri dituzte, ez dute denbora nahikoa eman hau garbitzeko. Harriak garbitzen, adibidez, denbora luzez boluntario batzuk baino ez gara aritu hemen (Sopelan) lanean. Barrikatik 20 etortzen ziren, Algortatik 10... Orain jada martxan omen dago plan estrategikoa, baina onartu dute pixka bat berandu dabilzala... Eta gu lehen egunetik egon gara honi aurre egiteko prest.

—Gure bertso eskola, horrelako egoeretan ere, mugitzen al da?

—Bai, dudarik gabe. Denetarako deitzen digute, eta jendea beti apuntatzen da. Eskolako jendea oro har oso konprometitua da.

—Noiz eta nola ikasi zuen Pellok euskaraz?

—Ni 14 urterekin hasi nintzen euskara ikasten, baina jendeak asko ikasi bai, bai-

na gutxi hitz egiten zuen, eta erabaki nuen baserri batera joatea, Errexilera. Han ez zekiten erdaraz. 15 egun egin nituen, eta 15 egunetan, euskalduna nintzen! Algortara itzultzean, berriro erdaraz egin behar, eta ni ez nengoen prest. Asko nirekin haserretzen ziren erdaraz ez nuelako egin nahi...

—Eta hortik zuzenean bertso eskolara?

—Behin Lazkao Txiki etorri zen Algortara, ederto ulertu nion eta oso ondo pasatu nuen. Orduan zaletu nintzen. Gainera, nire anai bat aurretik sartu zen eskolara, eta berarekin txapelketa guztietara

ERAKUSLEIHOA

- ▶ Pello Etxebarria Kerexeta.
- ▶ 1963an jaioa, Bilbon.
- ▶ Txikitatik Algortan bizi da.
- ▶ Oinarrizko ikasketak gaztelaniaz, frankismo garaian.
- ▶ Fisika ikasketak, 4. mailara arte.
- ▶ Lanbidez suhiltzaile (22 urtez lanean).

Marea beltza

Bertsotartzailea: Pello Etxebarria
Doinua: Munduan libre bizi izateko

1

“Prestige” hondora joan zenetik entzun dugu hainbat profeta, ta Jaurlearitzak hasieratik jarraitzen du ikerketa. Bilerako, jakintsu asko ta Imazen berriketa. Itsasoari arreta jarritz dago orbanetz beteta, ta hondartzetan bakarrik egin behar dugu garbiketa, txapapoteak gure hondartzetan aparkatuko du eta.

2

“Hondartzak behar dira garbitu eta harriak zikin laga”, Jaurlearitzako jakintsu denek diote lau haizetara, denborarekin dena itsasoak garbitzen du mara-mara. Oso jende azkarra da, telebistak du atara. Gura duena anima dadin garbitzera badaezpada; jende honekin joango gara gure herriaren hiletara.

3

Eskertu nahi dut arrantzaleak egiten ari direna, ta gogoratu estrategia txakurraren putza dena. Informazio dena izan da galipot bezain gardena, tapatu nahi dute dena, “Nautilusen” lana zena. Ez al dakite itsasertzean harria dena gehiena? Kosta osoa garbitzea da exijitu behar zaiena.

HIRU LERROAN

“Nire erronka nagusia hobetzea da, eta gustuko giroan kantatzea, giro herrikoiki eta jatorrean”

joaten nintzen. Ikastaro bat ere antolatzen, eta nik espero ez banuen ere, azkenean lortu nuen zer edo zer ikastea.

—Gaurko gazteekin oso ondo moldatzen zara, ezta?

—Gaur egun eskolan dauden asko nik ekarriak dira. Herriko jendea ikusten nuen hortik, ezer egin barik, eta eskolako “fitxatu” nituen. Orain horien inguruan (Jagoba, Katxo...) giro polita sortu da, eta giro horretan oso gustura ibiltzen naiz.

—Eta surfa, Pello, bertsotarako inspirazio iturri al da zuretzat?

—Surfa egiten dodan egun batean, oso erlajatuta joaten naiz eskolara, burua garbi, baina nekea ere nabaritzen da. Surf saio on baten ostean bertso saioa dator, bertso eskolara asteartero joan behar delako, nahiz eta berandu heldu. Nik ez dut

loturarik galdu nahi eskolarekin. Gainera, beti etortzen da jende berria, eta hori oso pozgarria da.

—Zein erronka jartzen dio bere buruari Pellok, bertsolari moduan, aurrera begira?

—Nik bertsolaritza kirol bezala ikusten dut, prestatu behar da, entrenatu, eta nire erronka nagusia hobetzea da, eta gustuko giroan kantatzea, giro herrikoiki eta jatorrean. Horregatik “Txapel bete bertso” ekimena oso ondo ikusten dut. Bigarren helburua euskara jatorrerara gehiago hurbiltzea litzateke, esamoldeak erabiltzea... gero bertsotan ere horiek erabiltzeko.

Eta elkarrizketa bukatuta, han utzi genuen Pello, itsasora begira, Sopelan, hondartzara jaisteko prest, oraindik ere, berak dioenez, asko baitago garbitzeko.. m

BERTSOAGENDA

“Txapel bete bertso” ekimena

▶ Otsailak 28, 20:30ean, Bermeon. Bertsolariak: Pello Etxebarria, Ander Oleaga, Txomin Madalena, Ekaitz Larrazabal.

“Inauteriak”

▶ Martxoak 2, 13:00etan, Bilboko Plaza Barrian. Bertsolariak: Fredi Paya, Arkaitz Estiballes, Etxahun Lekue, Amets Arzallus.

“Txapel bete bertso” ekimena

▶ Martxoak 13, 20:30ean, Bilboko Espuela tabernan. Bertsolariak: (tokatzen direnak, hil).

Mendebaleko euskera

Gure hizkeraren bereizgarriak

Aurrekoan ikusi genuen legez, mendebaleko euskara osatzen duten hizkerak ezaugarri jakinak dituzten arren, aldaerak ere badituzte euren artean. Oraingoan, ostera, gure hizkerara hurbilduko gara eta sartaldea eta sortaldea bereizten duten ezaugarriak aztertuko ditugu, modu laburrean.

Testua: Urtzi Iglesias

Sartaldsartaldea

Sartaldea eta sortaldea bereizten duten ezaugarri nagusiak

* **Leioako eta Eibarko adibideak hartu ditugu**

- j-ren ebakera: sartaldean /j/ eta sortaldean /x/:
yakin vs **jakin**
- a -> e / i,u (C)___ asimilazioa indartsuagoa da sartaldean:
lagun bet vs **lagun bat**
- Sartaldean, hiatuetan ez da o + V -> u eta e + V -> i disimilazioa betetzen:
seme vs **semie** / **asto** vs **astue**
- Joan, eroan aditzetan, ez dago disimilaziorik sartaldean:
doa vs **doia**
- Sozietibo pluralean, sartaldean -kaz eta sortaldean -kin.
lagunekas vs **lagunekin**
- Hurbiltze adlatiboan, sartaldean -rantza eta sortaldean -rutz:
basorantza vs **basorutz**
- Atzizki txikigarria, sartaldean -txu eta sortaldean -txo:
ogitxu vs **ogitxo**
- Aditz iragankorren 3. pertsona pluralean, sartaldean -de/-die/-rie bezalakoak erabiltzen dira:
daude/ daudie/ daurie vs **dabe 'dute'**



Aldaerei dagokionez

Sartaldean: anajea 'anaia'; baie 'baina'; duzti 'guzti'; gane 'gain'; yantza 'dantza'; uger 'igeri'; bere (sort. be) 'ere'...

Lexikoari dagokionez

Asao 'urrun'; belu 'berandu'; erdu 'etorri'; ilen 'astelehen'; lotu 'geratu'; koiu 'hartu'; luki 'azeri'; ostondu 'ezkutatu'; paraje 'gertu'; sano 'oso'...

Gurberbakeria

GURE AZENTU(IV)

Testua: **Xabi Bilbao**

Azentun generako hirugarren kapitulun ikusi gendun esaldi betek azentu bi darozela gitxienez; bat galdegaien taldeko akabuko silaban, eta beste bat aditzen taldeko akabuko silaban; kasu baterako:

Aittek horitxe esan dosku guri beré.

Horitxe da azentun kontutun kasurik sinpleena. Baia azentu gehiau agertuten direz beste kondiziño batzuk agertu ezkeron. Hiru kondiziño nagosi dauzela esan lei:

Bat, esaldiko partek (gramatikako berbabakeran esanta, "sintagmak") luzek badirez, bakotxak azentu erongo dau sarri akabuko silaban. Kasu baterako:

Komunidadeko administradoran aitték / horitxe gauzé / esan dosku amari eta niri / etxeko aten bertán.

Bi, esaldi bat baño gehiau alkartute badoaz (gramatikako berbabakeran esanta, "esaldi menperatuk" badauz) azentuk agertuten direz esaldin arteko

loture eiten dauden elementuten. Kasu baterako:

Aittek kalera urten dáunen / zuk diñózun / horitxe esan dosku guri beré.

Hiru, esaldik berba azentudunek badekoz (ikusi II kapitulu) bakotxak beran azentu erongo dau:

áittittek horitxe esan dotzue zúori beré.

Esaldi honetako áittitte eta zúori berbak azentudunek direz, hau da, berez eta beti eroten daude azentu, bardin da zein lekuten esaten direzen esaldi baten barrun. Ostera horitxe eta bere azentubakok direz, eta esaldi honetan azentu daraude galdegaien talden eta aditzen talden akabuko lekuten dauzelako.

Gure berbakerak berba azentudun asko dekoz, eta kasu gehienatan arrazoiran bat dauke azentu eroteko. Hurrengo kapitulutun eingo du berba horren ganera.

akabukopunte@hotmail.com

Zuen hizkeraren gainean zeozer aipatu gura baduzue, zalantzaren bat edota proposamen bat baduzue... posta elektronikoa erabili gurekin harremanetan jartzeko



orain
hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5.
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

Euskara ikasten dute**Rosi Igartua (Gorliz)**

—Noiz hasi zinen euskara ikasten?

—Buff... orain dela urte pilo bat, ez dut gogoratzen ere.

—Zein mailatan zaude?

—Suposatzen da EGArako bidean nagoela baina nahiko bide luzea da hori. Goi-mailako urratsean nagoela esango dugu.

—Non ikasten duzu?

—Sopelako udal eskalategian hasi nintzen, gero Plentziako eskalategitik pasatu nintzen eta orain Gorlizko AEKn nago.

—Zerk bultzatuta ikasi zenuen euskara?

—Alde baterik, euskara gustatzen zaidalako eta, bestetik, hemen bizi naizelako.

—Zer da gehien kostatzen zaizuna?

—Hitz egitea batik bat, baina aditzak ere nahiko zailak dira.

—Orain arte ikasitakoa erabiltzen duzu?

—Saiatzen naiz erabiltzen baina oso lotsatia naizenez asko kostatzen zait. Batez ere eskalategian erabiltzen dut eta nik ezagutzen ditudan euskaldun pertsonekin.

—Zelan definituko zenuke euskara?

—Hitz gutxitan esan dezaket: asko gustatzen zaidan hizkuntza da euskara. m

Gehi programa

Getxoko Udalak eta gazte elkarteek euskara sustatzeko **hitzarmena** sinatu dute

Lagunartea aisialdi taldeak, kirol taldeak... oso esparru garrantzitsuak dira haurrak gizarteratzearen ikuspuntutik; izan ere, eremuotan gertatzen da, neurri handian, portaeren ikasketa; eta horien artean, hizkuntza-portaera. Honela, euskararen normalizazioari begira, Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak hiru fasetan banatutako lan bat burutzea erabaki zuen; lehenik, herriko elkarteetan euskarak duen egoeraz ohartzeko ikerketa; ondoren, informazioaren azterketa; eta azkenik, euskararen erabilera bultzatzeko, datuetan oinarritutako proposamenak plazaratzea.

Bada, herriko 29 gazte elkarteri galdera sorta bana bidali zion Euskara Zerbitzuak, euskararen gaitasunari eta erabilerari buruzko informazioa biltzeko. Gehien bat aisialdi elkarteak ziren baina baziren tartean antzerki eta abentura taldeak ere. Horietatik, 26 taldek erantzun zuten.

Datuon arabera, gazte elkarteetan inguruan 3800 bat lagun biltzen dira. Haue-tatik, herena baino gehiago euskaldunak

dira, eta laurdena euskaldun hartzaileak. Baina hizkuntza gaitasun honek ez du isla zuzenik elkarteetan barruko erabileran.

Hau dela eta, Udalak argi ikusi zuen plazaratuko zituzten proposamenek hiru puntu jorratu behar zituztela: motibazioa, ezagutza eta erabilera.

Baina proposamenak aurrera eramanean ahal izateko, ezinbestekoa da alde guztiek parte hartzea; eta konpromiso hori lortzeko asmoz, izaera sinbolikoa zuen hitzarmena sinatu zuten otsailaren 21an.

Lana, ordea, ez da horretan geratzen eta hitzarmen horri jarraitasuna ematea behar-beharrezkoa da helburuak lortuko badira. Horretarako, Euskara Zerbitzua elkarteekin harremanean egongo da etengabe; eta urtebete barru ebaluazioa egingo dute.

Arlo jakin batzuetako gazte taldeekin egin du Udalak egitasmo hau, baina aurrera begira bestelako taldeekin ere lanean aritzeko asmoa ere badu. m

Informazio gehiago

Getxoko Euskara Zerbitzua: 94 491 14 41

Koldo Iturbe zinegotzia eta Iñaki Zarragoa alkatea Gehi programa aurkezten



Uribe Kostako Euskara Zerbitzuak zure zerbitzura

Getxo: 94 491 14 41 • Leioa: 94 400 80 44 • Erandio: 94 676 26 74 • Berango: 94 668 00 08 • Gainerako herriak: 94 676 26 74

AGURRA KULTUR TALDEA + ALGORTAKO ESKAUT TALDEA +
ASOCIACIÓN BENÉFICA GALEA + CLUB IBAIONDO + BERANTZAGI DANTZA TALDEA +
ELEIZPE ESKAUT TALDEA + ELIZONDO AISIALDI TALDEA +
ERROMOKO ARDATZA + GETXOKO ANTZERKI ESKOLA +
ESKUBELTZ ESKAUT TALDEA + ETORKIZUNA MENDI TALDEA +
GAZTETASUNA + HAZI ETA BIZI + ITXARTU KULTUR ELKARTEA +
ITXAS ARGIA TALDEA + KIRIK + NATURLAN +
A.J. DE TIEMPO LIBRE SAN NICOLÁS DE BARI +
SANTA ANA AISIALDI TALDEA + TARPOON SUB. +
ZASI-ESKOLA DANTZA TALDEA + ZIZTU BIZIAN ESKAUT TALDEA



9E+H1
getxo euskalduntzeko hitzarmena



GETXOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE GETXO



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Txarripatak

Plater honek aurrekoan egin genuen barraskiloen saltsa bera du oinarri, hau da, Bizkaiko saltsa. Hasteko, zer esanik ez dago, gure konfiantzazko harakinari eskatuko dizkogu txarripatak, erditik zatitu eta majestic-ean ordu erdiz egosten jarriko ditugu porru batekin eta piper beltz bola batzuekin. Bestaldetik, Bizkaiko saltsa prestatu behar da. Tipula, porrua eta berakata txikitu behar dira eta su ahulean jarriko ditugu. Ondoren txorizo-piperrak gehituko ditugu, hauek ordu erdiz ur berotan eduki eta okela kendu ondoren. Hau guztia hamar bat minututan sutan eduki eta gero txinotik pasatuko dugu. Saltsa urtsua gera ez dadin, okela salda apur bat bota dakioke. Amaitzeko, lapikoan aurretik egositako txarripatak eta saltsa lapikoan elkartu, irakiten duenean, prest dago. ^m

osagaiak (6 lagunentzat)

6 txarri pata • biru tipula gorri, handiak • berakata • porru bat
10 txorizo piper • 150 ml. okela salda • piper beltza • olio • gatz



itsaso arana / jolastoki-koa

Patxarana

Nafarroako ohizko edaria da eta 1988tik Denominación Específica de Pacharán Navarro delakoak babesten du. Jatorrizko izendapen honek 16 marka saltzen dituzten sei enpresek osatzen dute. Hala ere, antzinako testuen arabera, patxaranaren jatorria frantsesa ei da. Patxarana egiteko erabiltzen diren basaranak edo patxaranak, Europa osoan zehar daude.

Basaranak udaren bukaeran ontzen diren kolore beltz-urdi-neko basafrituak dira. Jatorria basalandare batean du (Prumus spinosa L.), hala ere, lau mota egoki bereiztu dira eta gaur egun, esperimentazio lanen ondoren, badira mota hauetako 110 hektarea basaran Nafarroan, gehienak Erriberan.

Historikoki bere balizko propietate digestiboak direla eta, sendagai moduan erabili izan da patxarana. Mende hasieran patxarana egiteko basaranak eta anisa botilan elkartuz egiten zen. Gero, gozotasun apur bat emateko melokotoi zatiak gehitzen zitzaizkion. Hala ere, 1956. urtera arte ez zen modu industrialean produzitzen hasi.

Gaur egun, patxarana egiteko basaranak alkohol agrikolean beratzen dira, lehenago edo ondoren, anisaren olio esentziak gehitzen zaizkio. Beratzea hilabete bat eta zortzi artekoa izaten da. Prozesu honi esker hartzen du patxaranak bere kolore gorri berezi hori. Garrantzitsua da azpimarratzea, beratze prozesuan aldika astindu egiten dela patxarana basaranak ondoratu ez daitezen, suspentsioan egon behar dute-eta zapore transmisio egokia lortzeko. Nafarroako araudiak 125-250 gramo basaran patxaran litroko agintzen du. Amaitzeko aipatu behar da edari honen graduazio alkoholikoa 25 eta 30 artekoa izaten dela. ^m



Goiezi erretegia Sukaldaritza berria



Argazkian, Aitor Asenjo sukaldaria

Oraingoan Portu Zaharrera hurbildu gara Aitor Asenjok duela zazpi hilabete hartu zuen Goiezi erretegiaren berri izateko. Jantoki ederra duen erretegia da (kuadro-erakusketez apainduta) eta denetarik eskaintzen dute bertan: prezio merketxoa duen eguneko menua astean zehar, asteburuko menua eta Portu Zaharreko arrain tipikoetan eta itsaskietan oinarritutako karta berezia ere. Berezia, batez ere, plater berritzaileak direlako, izan ere erretegiako sukaldaria ere baden

Aitor Asenjok egile-sukaldaritza egiten du. Gainera, asteburuetan, tabernako barra pintxoz betetzen dute eta razioak ere ugariak dira (marraskiloak, olagarroa, eta arrakastatsuenak diren txoritxu frijituak). Jai-bezperetan, ikuskizunak eta zuzeneko musika ere eskaintzen dituzte afalorduan. ^m

GOIEZI / Aretxondo 14, Portu Zaharra, Algorta
Eguneko menua: 8 euro (aprox.)
Asteburuko menua: 19 euro (aprox.)
Telefona: 94 491 25 93

jakingehiago



Liburua > "La cocina vasca de siempre"

Derrigorrezkoa

Amak egiten zizun porrusalda, indabak edota arrozkoletxea jan nahi baina zelan prestatu ez dakizula? Lasai, liburu honetan hori guztia eta askoz gehiago topatuko duzu. Izan ere, Txuno Etxanizek betiko euskal sukaldaritza zertan den oso modu argian azaltzen du. Guztira 750 errezeta bildu ditu egileak liburuan eta gainera oso erraz ulertzeko moduan. Orain arte sukaldean aritzen ausartu ez bazara, aurrerantzean ez duzu aitzakiarik izango. Liburu sano gomendagarria.

La cocina vasca de siempre
Egilea: Txuno Etxaniz / Lur argitaletxea

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea



adituak gara
makailo eta
kazolatxoak
prestatzen

Bilbo-Plentzia errepeidea
Elexalde 9, Barrika - Tlf-94 677 30 09

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO



orain
hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa
48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31
bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

ITXASGANE

prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Aritzule z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

EREAGA

Bidaiak
Autobusak

T: 94 453 08 16 - 609 405 988
Faxa: 94 453 33 34
GETXO

Bilboko turribidealean
BAR?LA?ESPUELA

Ostegun kulturalak Puntako

elkartoki eta giro jatorria

12:00tatik 15:00ak arte
18:00tatik 22:00ak arte
Asteburuetan: 18:00tatik aurre

BAR SPL

tel: 94 415 05

JATEKO

jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 94
ALGORTA

OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 AREETA T.: 94 464 89 94
Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA T.: 94 491 13 94

[horoskopoa]

<p>URA t</p> <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Telebista gehiegi ikusten duzu gaez eta hori ez da ona zure neuronentzat. Hain gustukoak dituzun ordu txikieta-ko saio horiek ez dira batere osasuntsuak. Gainera, hurrengo goizean umore txarrez itxartzen zara. Hobe duzu garaz oheratzea.</p>	<p>OTSOA t</p> <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Kontu gehiagoz ibili beharko zenuke kalean. Nahiko despistatuta zabilza zure gauzetan pentsatzen eta edozein momentutan istripuren bat eduki dezakezu. Bestalde, zure ametsetako autoa erosteko dirurik ez duzu, beraz zaharrekin jarraitu beharko duzu.</p>	<p>ADARRA t</p> <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Gero eta denbora gutxiago geratzen da zorieko merkealdiak bukatzeko. Joan ez bazara oraindik, zeren zain zaude. Pagotxak bukatzeaz daude eta nahi duzun jantzi hori agortuta egon daiteke dagoeneko. Lo hartu aurretik liburu bat irakurri.</p>
<p>AITZURRA t</p> <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Ikastolatik edo lanetik bueltatzen zarenean bapo-bapo bazkaltzen duzu eta ondoren sofan jartzen zara manta bat gainean duzula. Ze ondo, ezta? Baina gero komeni lizateke ariketa gehiago egitea. Ez litzazuke txarto etorriko.</p>	<p>HOSTOA t</p> <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Uzi harreman hori interesatzen ez bazaizu; zure bikotekideak ez du horrelakorik merezi. Garrantzitsuak ez diren gastuak geldiarazi beharko zenituzke. Lan eskaintza bat eduki dezakezu, eta soldata orain duzuna baino hobeagoa izan daiteke.</p>	<p>EGUZKIA t</p> <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Harreman bat hastekotan bazaude edo ezkontzeko asmoa baduzu ez pentsatu bi aldiz. Orain heldu da unerik aproposena, eguraldi ona ziurtatuta ez egon arren. Dena den, zeruko izarrak zure alde egongo dira. Oinez gehiago ibili.</p>
<p>GARIA t</p> <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Maita dituzun pertsona guztiak zoriontsu egiteko aukerak aprobetxatu. Espero ez zenuen diru apur bat jaso dezakezu, baina lanean giro korapilatsua dago. Lasaitasuna jarri beharko duzu bertan, edo eztabaidetatik ahalik eta urrunen egon.</p>	<p>LASTOA t</p> <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Zoriontsua zara, baina bizitzak emango dizkizun maitemintzeko aukerak gozatu behar dituzu. Ez larritu diru arazoak badituzu. Lanari gogor ekiten badiozu zer egiteko gauza zaren erakutsiko diezu zure ugazabei.</p>	<p>IRATZEA t</p> <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Zure lagunekin edo konfiantzako norbaitekin berba egiten baduzu aukera berriak emango dizkizute zure harremanak nabarmen hobetzeko. Arriskurik ez dago baina badaezpada ere zure ekonomia begi bistatik ez galdu.</p>
<p>META t</p> <p>(Irailak 17 urriak 16) Garai aproposa da lana aldatzeko. Agian horregatik nahiko urduri egongo zara datozen egunotan. Telefono dei asko egin beharko dituzu, baina azkenean kontratu bat sinatzeko aukera izango duzu edo behintzat akordio batera iritsiko zara.</p>	<p>HAZIA t</p> <p>(Urriak 17 azaroak 15) Maitasun arloan jelskortasunak indar handia har dezake, harremanak arriskuan jartzeraino. Espero ez zenituen gastuak etor daitezke. Lanean gora egin gura baduzu garai ona da zure ugazabagaz berba egiteko. Askok mugituko zara.</p>	<p>NEGUA t</p> <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Gehiegi pentsatzen duzu buruarekin eta maitasun kontuetan bihotzarekin pentsatu behar da maiz. Ahalegindu zaitetz. Maitasun irrika gehiago erakutsi beharko zenuke. Hasi oparixto bat eginetz, adibidez.</p>

mungia

OKINdegia

Algortan badaukagu
artisansuen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".


Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

- 1. Andregai. 2. Poztasuna, bozkarioa. 3. Ordaintzeke dago. Atxiki, heldu. 4. Zikinkeria. Zornotzako auzoa. 5. Ez eme. Makur. Erbioaren sinbolo kimikoa. 6. Zuberoako herria, Basabürüan. Entzumenik ez duena. 7. Guztiz zehaztuak. Euskal fonema. 8. Iodoaren sinbolo kimikoa. Leku hartan. Zakuraren familiako basa-animalia. 9. Bizkaieraz, apaiza. Iparraldean, begirada. 10. Ipar., kirats. Bilokak.

Goitik behera

- 1. Nardaldiak, biguinaldiak. 2. Bizkaiko herria. Berilioaren sinbolo kimikoa. 3. Lapurdiko herria. Muskulu. 4. Modu atzizkia. Gizagaixo. 5. Sarrerak. Momentu. 6. Bi gehi bi. Lizarratik igarotzen den ibaia. Interjekzioa. 7. Astekari. Berrogeita hamar. 8. Lehengusu. Röntgen. Errepublikatuz, loaren gaitza sorrarazten duen eulia. 9. Mundua. 10. Sodioa. Auziak, problemak.

Soluzioak



Luma

EUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoen
hilabetekaria

Zozketa mundiala*
harpidedunen artean
8 eguneko kruzeroa 2 lagunentzat
Mediterraneoan (otorduak barne)

* Zozketa 2003/03/31n egingo da

BIDALI ZURE DATUAK ETA IZAN ZAITEZ LUMA-KO HARPIDEDUN

Luma

BAGABIGA, E.M.E.
Istillaga plaza 2 behe. 307 PK-20304 IRUN
Tfnoa: (+34) 943 62 95 64 - (+34) 943 63 08 83
luma@xedera.com / www.xedera.com



asmatu eta irabazi > argia astekaria



Nor da?

- 29 urte ditu
- Athleticen ikurretako bat da
- Heynckesek igo zuen lehen mailara

> Aurrekoaren erantzuna: Lorena Bernal
> Irabazlea: * **Marta Zamakona (Usansolo)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / faxa: 94 491 58 31

Argia astekariaren hiruhilabeteko harpidetza doan



Zazpiak Batman kamiseta

www.argia.com

Unai Brea

Berangoko dantza taldea, 1947-48

Esanda daukagu aurreko UK batean, aurton Berangoko Simon Otxandategi dantza taldearen 60 urte beteko direla. Hori gogora ekartzeko, taldearen hasierako urteetako argazki bat ekarri dugu orrialdeotara. Geugaz berba egin dutenak ez dira ados jarri argazkia zein urtean egin zen, baina 1947 edo 1948 dela esan dezakegu okertzeko beldur barik. Hainbat elkarrizketa egin behar izan dugu irudian ageri direnak identifikatzeko, eta, zelan edo halan, arrakasta eduki dugu, ia denak ezagutu ahal izango ditugu eta. m

Zutunik: Juan Atxurra (txistularia), Cesar Uriarte "Txitxarro" (GB), Salvador Iturriaga, Jaime Bilbao (GB), Rafa Uriarte, On José María (apaiza), ?, Marcelino Arana, Iker Villa, José Antonio García "Txirri" (baliteke abizena oker egotea), Pedro Atxurra (txistularia).

Belauniko: Iñaki Irureta, Justo Olague, Pedro Mari Garai (?), Vicente Irureta, Jesús Fdz. Torres (GB), José Antonio Goirigolzarri, José Mari Onaindia "Tamari", ?, Alberto Saitua, ?, Iñaki Goirigolzarri.

* Oharra: aldizkarian argitaratzeko argazki zaharrik bazenu, jarri zaitetz mesedez UKrekin harremanean: 94 491 13 37

ABEL BARRIOLA > pilotaria

“Umiltasunean eta lanean sinisten dut”



Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat...

Nahiko mutil lasaia eta alaia naiz aldi berean.

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?

Nire akats nabarmenena, normalean, tokietara berandu iristen naizela da.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat...

Gehienak nire aitarenak eta berarekin batera pasatutako momentu onenak dira.

Zein da gehien miresten duzun pertsona?

Pertsonaia bat aukeratu behar badut, Che Guevara aukeratuko nuke.

Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?

Behin, pertsona batek esan zidan beraren aita nire zalea zela eta bizitza honetan esan zuen azken hitza Barriola izan zen. Beraz hori da niretzat esan didaten gauzarik ederrena.

Zein komentariok egin dizu kalte gehien?

Ez dut uste kalte egiten duen komentariok dagoenik.

Abestirik gustukoena?

“Angel”, *Aerosmith*ena.

Eta film bat?

Asko gustatu zitzaidan filmea Penny Marshalen *Despertares* izan zen.

Zerbaitekin damutzen zara?

Bueno... badaude damutzen naizen gauza batzuk, baina ez nuke atzera egingo, damutze horietaz asko ikasi dudalako.

Zein lelorekin egiten duzu bat?

Uff... ez zait bururatzen bat ere.

Zertan edo norengan sinesten duzu?

Umiltasunean eta lanean batez ere.

Zerk ematen dizu beldurra?

Heriotzak batik bat.

Nork edo zerk egiten zaitu zoriontsu?

Osasunaz ongi egoteak, orohar zoriontsu izateko oso gutxi behar duen pertsona naiz. m



AGURRA KULTUR TALDEA + ALGORTAKO ESKAUT TALDEA +
ASOCIACIÓN BENÉFICA GALEA + CLUB IBAIONDO + BERANTZAGI DANTZA TALDEA +
ELEIZPE ESKAUT TALDEA + ELIZONDO AISIALDI TALDEA +
ERROMOKO ARDATZA + GETXOKO ANTZERKI ESKOLA +
ESKUBELTZ ESKAUT TALDEA + ETORKIZUNA MENDI TALDEA +
GAZTETASUNA + HAZI ETA BIZI + ITXARJU KULTURELKARTEA +
ITXAS ARGIA TALDEA + KIRIK + NATURLAN +
A.J. DE TIEMPO LIBRE SAN NICOLÁS DE BARI +
SANTA ANA AISIALDI TALDEA + TARPOON SUB. +
ZASI-ESKOLA DANTZA TALDEA + ZIZTU BIZIAN ESKAUT TALDEA



ABEL BARRIOLA- Leitzako pilotalekuan hasi zen, zortzi urte zituela, Abelen pilotazaletasuna. Gaur egun 24 urte dauzka eta 2002. urteko buruz buruko txapelketa profesionaleko txapelduna da. Horrez gain, hainbat titulu lortu ditu atzelari honek 1999 eta 2002 urteen artean: bigarren mailako eskuz binakako txapelketa (1999); bigarren mailako buruz buruko txapeldunordea (1999); Nafarroako lau eta erdiko txapelduna eta lau eta erdiko profesional mailako txapelduna (2002). Bai palmares ederra!